

9. zkia  
2020ko  
apirila

**talaia**  
gogoetarako gunea

# COVID-19

## EGITURAZKO KRISIEN BIZKORTZAILE

---

Andoni Olariaga • Josefina Roco • Xabier Ugartemendia  
Jagoba Zulueta • Nerea Kortajarena • Mikel Alvarez • Marra Junior  
Adrian Zelaia • Maddalen Dorador • Xabier Isasa

---

iparhegoa  
IKASKETA  
SINDIKALETARAKO  
FUNDAZIOA




> ekintza soziala

**T**alaiaren 9. zenbakia duzu esku artean. Gogoetarako gunea da guretzat Talaia. Argitalpen bat ez ezik, hausnarketa eta eztabaida esparru fisiko ere bada. LAB-eko Ekintza Sozialeko aparatuek eta Ipar Hegoa Fundazioak gogoeta eta formazio politiko eta sozialerako egiten dizugun eskaintza izan nahi du eta tarteka halako argitalpenak izango dituzue eskura, baina baita mintegiak eta elkartruckerako espazio fisikoak ere.

Zenbaki honi dagokionez, Covid-19aren gestioak agerian utzi dizkigun zirrikitu, hutsune eta zuloei buruz aritu gara. Egoerak hala eskatzen zuela uste izanda ale berezi bat argitara ematea beharrezko ikusi dugu eta zuen interesa piztuko duen elkarrizketa eta analisis osatu dugu: **Andoni Olariaga** fase honek sortu dituen erpin desberdinei buruz aritu da etorkizuna eraikitzeko gakoak emanez. **Jagoba Zulueta** euskal errepublika eraikitzeko urratsak ematea proposatu dugu egun bizi dugun gobernantza eredu jasanezinaren gabeziak aletu ondoren. Eredu horretaz aritu zaigu **Mikel Alvarez** ere, kontrol sozial eta polizialean zentratuz batipat. Euskal Herritik baino ikuspegi zabalagoetik mintzatu zaigu **Adrian**

**Zelaia**, ekonomia globalizatuaren aukera eta arriskuei buruz, bertako ehun ekonomikoaren bilakaeran eta berau indartzeko proposamenetan jarriz azpimarra.


Oso bestelako hutsune bati buruz hitz egin digu **Josefina Roco**, zaintza modu zabalean ulertzeko eta berau berrantolatzeko beharrari buruz hain zuzen ere. Bide horretan, **Nerea Kortajarenak** publikoa indartzeko premia mahaigaineratu digu. Helduen beharrezanetan, heriotza duina izateko eta modu duin batean zainduak izateko gaur egun dauden zailtasunen eta horien arrazoen inguruko analisia egin digu **Xabier Isasak**. Hari horretatik tiraka jarraitu dugu **Maddalen Doradorrekin**, bizitza sostengatzen duten sektoreei eta euren lan baldintzei buruzko gogoeta ekarri baitugu Talaia. **Xabier Ugartemendia** Covid-19aren gestioan izan diren lehentasunei buruz mintzatu zaigu, langileen beharrezan ez direla lehen lerroan kokatu argitu utziz. Azkenik **Marra Juniorrek**, Euskal Herrian migranteek eta arrazializatuak bizi duten egoeraren inguruan solastu du, konfinamenduak aurretik dagoeneko existitzen ziren arrakalak nola larriagotu dituen azalduz.



**3** Andoni Olariaga



**6** Xabier Ugartemendia



**8** Josefina Roco



**11** Jagoba Zulueta



**14** Mikel Alvarez



**16** Marra Junior



**18** Nerea Kortajarena



**21** Adrian Zelaia



**24** Xabier Isasa



**26** Maddalen Dorador

**T**ienes entre manos el noveno número de Talaia, un número especial en el que hemos tratado de desgranar las diferentes carencias que ha dejado en evidencia la gestión de la crisis del Covid-19. Desde una perspectiva local a una más global, desde el movimiento feminista, sindicalista, institucional, social... hemos traído diferentes puntos de vista para poder abordar este tema tan complejo. La crisis de los cuidados, empleos precarizados sosteniendo la

vida, el control social y policial, los servicios públicos o el modelo de gobierno son entre otros los temas que encontrarás en este Talaia. Diferentes temas y perspectivas con muchos elementos en común que nos ayudarán a entender las consecuencias de un modelo construido desde y para el capital y que coincidirán en la necesidad de construir un nuevo modelo en el que las vidas y los cuidados sean el elemento central del sistema.



Aldizkari honen edukia Creative Commons - Aitortu - Partekatu berdin lizentzia baten pean daude.

Lizentzia honekin, edukia kopiatu, banatu eta erakutsi zein lan eratorriak egin ahal izango dituzu, beti ere ondorengo baldintzak betez:

- Edukiaren jatorrizko egilea aipatu behar duzu.
- Edukiaren aldaketarik egiten baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu eta hau banatzekotan, honako lizentzia honen baldintza beretan egin beharko duzu.

Los contenidos de esta publicación están bajo licencia Creative Commons - Reconocimiento - Compartir igual.

Con esta licencia eres libre de compartir, copiar y redistribuir el material así como de crear trabajos adaptados, siempre bajo las siguientes condiciones:

- Debes reconocer adecuadamente la autoría.
- Si creas un trabajo derivado, debes difundir las contribuciones bajo la misma licencia que el original.

# Covid-19 pandemiari buruzko 6 gogoeta

ko gertatzen ari denaren analisiak egin daitezke.

## 1. HISTORIAREN AZKARTZEA

Badirudi krisiak gure elkar-bizitza aldatu-ko duela epe ertainera: gure gorputzarekin eta besteenarekin dugun harremana, gure aisialdia, oporrak, bazkariak, jai ereduak... Izan ere, Covid-19 pandemia mundialak historiaren azkartze izugarria ekarri du, paradoxikoki, geldien gauden momentuan. Batetik, orain arteko sentazio dominantea historiaren geldinean zen. Duela ez hainbeste Byung-Chul Han pentsalari hegokorearrak disinkronia batean bizi ginela esaten zigun, denborak erritmo ordenatzaile bat izateari utzi ziola, alegia, norabiderik gabe zegoela, narrazio faltan. Pandemiarekin tesi hori goitik behera hautsi da: errealitateak hilabete bakarrean abiada izugarria hartu du. Koadro geopolitikoak, harreman sozial kulturalak, lanaren nolatasunak, nazioarteko zein estatu mai-

**A**zken asteotan Covid-19 pandemiaren inguruko hitzaldiak, liburuak, artikulua ugalduta dira han-hemenka. Gobernariaren informazio eskasiaren edo ezkutaketaren ondoan, informazio saturazio edo inflazio nabarmena dago. Covid-19ak dakartzan erronka politiko, sozial, humano, ekonomiko, antropologiko eta ekologikoei heltzeko beharrak prezipitaziora eraman gaitu guztiok. Baina krisiaren hasieran egonik, ezinezkoa da bertatik burua atera eta etorkizunean etorriko den gizarteaz mintzatzea. Aldiz, orain pentsatzen denaren kontingentzia kontuan hartuz, eta analisiak umiltasunez eta lasaitasunez eginez, dagoene-

**ANDONI OLARIAGA  
AZKARATE (1984, Berriz).  
Filosofian doktorea. Iratzar  
fundazioan periskopioaren  
arduraduna eta Erria  
aldizkariaren zuzendarietako  
bat.**



**Andoni  
Olariaga**

Filosofoa

ANDONI OLARIAGA

lako instituzioak, gure balio eta ohiturak, gure zaugarritasunaren kontzientziak, erabateko astindua jasan dute. Bestetik, historiaren azkartze honekin batera krisiak uzten ari duen tragedia humano eta kolektiboa eta arrasto psikologikoa neurtezina da orain. Gure bizitzen kontingentziaren gaineko kontzientzia azaleratu da azken asteotan: giza zaugarritasuna, hilgarritasuna, agerian jarri da, batez ere hain gazteak ez diren belaunaldietan. Eta horrekin batera, elkar-bizitzeko genituen egitura sozial, publiko eta pribatuen, eta balio kultural eta sozialen oinarri kontingentea ere agerian geratu da.

## 2. NEURRI ANBIBALENTEAK

Pandemiak 2008tik zetorren krisi finantziero, ekologiko eta humanoa azkartu du. Testuinguru horretan, erabaki politiko sakonak hartzera behartu ditu politikariak, kontzienteak batzuk, pandemiak behartuta besteak. Batetik, ezkerrek amestu ere egiten ez zituen neurriak hartu dira. Generaman abiadura bortitza gelditzearen eraginez, hainbat adibidek ilustratzen dute egiten ari ginen kaltea: Veneziako urak inoiz baino garbiago daude orain; Nueva Delhi ingurutik Himalayako mendilerroa ikus daiteke; negutegi efektuko gasak izugarri murriztu dira; apustu etxeak itxita daude; etxegabetze gehienak geratu dira; hotelek gaixoak artatzen dituzte... Tenporalitate kontua izanagatik, pribatua, maila batean, publikoaren zerbitzura jarri da. Bestetik, neoliberalismoak bere interes eta irabaziak areagotzeko krisia baliatzen dabil han eta hemen: putre funtsek negozioa egiten (babes ofizialeko etxebizitzak erosit, Jauraritzaren baimenarekin); salmenta eta bidalketa plataforma handiak hazkuntza eta monopolizazio prozesua azkartuz; Azkoitin kudeaketa pribatuko zabor planta bat irekitzeko baliatuz krisia; kontrol sozialerako mekanismoak areagotuz... Alegia, egoera anbibalente batean bizi gara: hainbat neurri publiko eta sozial turbokapitalismoarekin nahastuta daude. Merkatu finantzie-

roak maila batean sufritzen daude; baina gehiago sufritzen dute eta sufriruko merkataria eta enpresari txikiak. Dena den, anbibalentzia horrek publikoaren beharraren eztabaida ekarri du erdigunera, eta ez da gutxi. Baina prekarizazio prozesua azkartuko du, zoritxarrez.

## 3. PANDEMIAK ZE TENDENTZIA POLITIKO ETA SOZIAL INDARTU DITU?

Krisi honetan lehendik zetozen tendentzia batzuk azkartu direla esan daiteke jada. Batetik, liberalismoaren mantra bat erori egin da, estatuak eta frontierak desagertuak zeudela zioena: Hendaian

---

Covid-19 pandemia mundialak historiaren azkartze izugarria ekarri du, paradoxikoki, geldien gauden momentuan

Gure bizitzen espekulazioa martxan, batzuen ekonomia ez geratzeko, guztion osasuna arriskuan jarritz

Optimismo boluntaristen eta pesimismo deterministen ginetik, etorkizuna politikaren esku egongo da

kalera atera zaitezke paseo bat ematera, Irunen ez. Alegia, estatu-nazioa zentrorra bueltatu da, soberano gisa agertuz, eta gure autonomiaren ezdeusa ere agerian geratu da. Bigarrenik, tendentzia anbibalente bat bizi dugu: amets totalitarioa gauzatu da maila batean, kontrol soziala eta gure bizitzen gaineko kontrol digital eta fisikoa indartuz, panoptikoaren gizartea hedatuz (guk gure burua kontrolatzen); baina bestetik, urrunkera soziala jendarteak sustatu du gobernariaren aurretik, eta egungo elkartasun keinua bihurtu da. Bi horien artean tentsio bat dagoela esan daiteke. Hirugarrenik, lanaren aldaketa azkartzen doa: XIX. eta XX. mendeko fordismo eredutik (lantegietako kate lanean oinarritua, non subjektua langileria zen), klase prekariatura egin genuen jausi postfordismoan, indibidualizazio eta atomizazioa bultzatuz, langile klasearen suntsipen partzialarekin batera. Lan kate produktiotik auto-lanera gehiago igarotzen joan gara, norbera bere ugazaba eta esplotatzaile bilakatuz. Ikusteko dagoen arren, badi-rudi tedentzia hori areagotu daitekeela, telelanean gehiago oinarritutako lan batera goazela, alegia (hor kokatu ote daiteke AEBek Huawei-ri ezarritako betoa 5Garen borrokan?). Laugarrenik, autoritarismoaren balio eta markoak indartzen ari dira: Fake Newsak, konspirazio paranoikoak (beldurra eta haserrea indartzeko), misoginia... Azken horrekin, pandemiaren koplak-burukoa (erruduna) seinalatuz arrazismoa (txinatarrek ekarri dute birusa) edo agenda anti-feminista indartzea bilatzen da ("Martxoak 8ko manifestazioak zabaldu du pandemia" mezu delirantea errepikatuz). Bosgarrenik, pandemiaren kurbaz hitz egiten da baina kurba ekologikoaz ahaztu gara: lehenaren irakaspen batzuk ateratzen gabiltzan bitartean, bigarrenaz ez hitz egiteak irakaspen inportante batzuk ateratzeko aukera galtzea ekar dezake. Eta azkenik, gure bizitzetan ezinbestekoa den substratu materiala, kultura, azken lerrora bota

dugu, krisi guztietan bezala, horren behar eta kontsumo handiena egiten dugun egunotan.

#### 4. DOLUAREN BOST FASEAK

Tendentziak tendentzia, Slavoj Zizekek azken liburuan esaten digun bezala pandemiaren bost fase igarotzen ari gara: lehenik, ukazioa ("gripe huts bat baino ez da!", esageratua...); bigarren, haserrea ("txinatarrak izan dira!", komunistek eta feministek areagotu dute... errudunak bilatzen dira, normalean eskuinak); hirugarrenik, negoziazioa (aurreko biak hobeto kudeatzeko, osasunaren eta gutxi batzuen ekonomiaren arteko negoziazio baten oinarritutako erabaki politikoak hartzen dira); laugarren, depresioa (nolabaiteko fatalismo bat indartzen da, etorriko dena okerragoa izango dela eta zereginik ez dagoela pentsatuz); eta azkenik, onarpena (hemen gaude, eta hemendik abiatuz bila dezagun modurik onena gizarte hobea bat eraikitzeko). Euskal eliteen jarrera ukazioan oinarritu da hasi eta buka: hauteskundeak ez zituztela geratuko hasieran, konfinamendua ez zela behar ondoren... Bi neurri horiek defendatzen zituena hitzontzi eta aurpegi-gogortzat jotz. Eta biak gertatu direnean hitzontziak kapitan a posteriori bilakatuz... Fase horretatik haserrearen fasean sartu zen ondoren, neurriak neurrigabetzat jotz, Confesbaskek bere zerbitzurako telebista publikoan haserrea erakutsiz. Aurreko biak utzi gabe, negoziaketan fasean dago orain: "nola mantenduko dugu gure ekonomia zirkulatu ahalik eta bizitza gutxien arriskuan jarrita?". Alegia, gure bizitzen espekulazioa martxan, batzuen ekonomia ez gertatzeko, guztion osasuna arriskuan jarritz. Izan ere, ez gaitzen tronpatu: ekonomiaren zati handi bat, enpresari txikiak, autonomoak, tabernariak, geldi geldirik dago, horien inisiatibaz asko eta asko; baina AHTaren eraikuntza segundu bakar bat ere ez da geratu. Atera kontuak.

#### 5. NARRATIBEN LEHIA: BIZITZA VERSUS KAPITALA?

Azken asteetan gerra diskurtsiboek



ANDONI OLARIAGA

hartu dute zentraltasuna: bakoitzaren politikak justifikatzeko markoen inposaketa gisa. Bi narratiba nagusi aipa daitezke. Batetik, Hego Euskal Herrian bi markoren arteko lehia egon da: euskal eliteak ezkerreko leporatu dio ekonomia eta osasunaren bereizketa manikeoa egitea; ezkerreko eliteei leporatu diete kapitala bizitzaren gaitetik jarri izana. Lehenaren markoa (telebista publikoak lotsagabeki sustatua), ekonomia eta osasuna aintzat hartu behar direla, eta kontrako inork esan ez duen arren, bien arteko dikotomia faltsua eraiki izana leporatu dio ezkerreari. Ezkerretik kapitala bizitzaren gaitetik jartzea egotzi zaio euskal eliteei: ekonomia baino, batzuen ekonomia guztion osasunaren bizkar kontuan hartu dela kritikatu. Bigarren narratiba lehia, estatu mailako nazionalismo banala izan da: espainiar eliteek estatu krisi ekonomiko eta territoriala faltsuan ixteko probesten ari dute kri-

sia, haien instituzio deslegitimatuek legitimatzeko (polizia, guardia zibila eta ejerzitua), eta pandemiaren aitzakipean Espainiaren batasunaren ideia indartzeko. Metafora militarrek ere, testuinguru horretan kokatu behar dira.

#### 6. PERSPEKTIBA BEHAR DUGU

Nola pentsatu etorkizuna? Azkarregi atera zaizkigu analisiak, liburuak eta hitzaldiak, pandemiak ekarriko duen mundu berria asmatu nahian. Pandemiaren profeta faltsuak ageri dira han eta hemenka. Egin daitekeena, asko jota, dauden tendentzia batzuk aipatzea da, dauden lehiak azaleratu, erabaki politiko batzuen oinarria agerian utzi: ezin daitekeena egin, ordea, etorriko den gizartearen aurreikuspen zehatzik egitea da.

Esango dudana bakarra da, agian, ezingo dugula oraingo krisiaren amaieraz hitz egin; aldiz, krisian bizitzen ikasi beharko dugula. Agian, mundua ez da gauetik goizera aldatuko, baina goitik behera aldatuko zaigu, agian. Ez dakigu. Dakiguna da, optimismo boluntaristen eta pesimismo deterministen gaitetik, etorkizuna politikaren esku egongo dela, herri bakoitzaren estruktura ekonomiko, sozial eta kulturalak, bere ehundura komunitarioak, hartzen dituen erabaki politiko-ekonomikoak, nazioarteko eszenatoki berriak, eta abarrek, horien denon konbinazioak kontuan hartu beharko direla etorkizunaz pentsatzeko. Norabidea alde batera edo bestera indartzeko, ordea, soberaniaren beharra zentrora ekartzeaz batera, praktika politiko integral bat martxan jarri beharko dela dirudi, txikitik handira eta handitik txikira eginez: elkar-zaintzaren kultura eta politika komun eta publikoa erdigunean jarritz, ekologiaren kurbak orain bezala behera segi dezan eraginez, politika lekutuak sustatuz eta sustraituz, eta hor, euskal errepublikaren proiektua egikaritzen joanez. ■



# «Ordezkarri politikoek eta patronalak osasuna bigarren lerroan jarri dute»



**Xabier Ugartemendia**

LAB sindikatuko ekintza sindikaleko arduraduna

**XABIER UGARTEMENDIA** (1972, Mundaka). Lan harremanetan graduatua, gaur egun LABeko ekintza sindikaleko arduraduna da.

LAB SINDIKATUA | CC BY SA

**U**rtariletik Espainiako Gobernuak Covid-19aren hedapenaren benetako arriskuak ezagutzen zituela onartu zuen. Neurriak ordea berandu eta hankamotz heldu ziren. Produktioak ez zuen etenik izan egunez egun milaka langile arriskuan jarriz, eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkarien ahotik produktioarekin jarraitzeko hautua besterik ez genuen entzun.

**Krisi honen gestioan zeintzuk izan dira lehentasunak? Langileon osasunaren bermea lehentasunen artean kokatu dute zure ustez?**

Lehenik esan behar dugu garrantzizkoak ziren erabaki guztiak Madriletik inposatuak etorri zitzaizkigula. Euskal Herrian ez dugu inongo aukerarik gure neurri propioak hartzeko pandemiari aurre egiteko, ezta bertoko agintarien partetik inongo borroka egiteko gure esparru eta

erabaki ahalmena defendatzeko. Urkulluk esan zuen moduan, "ez dut ezta 10 segundu ere galduko horretan". Horrek argi eta garbi erakusten du bai Jaurlaritza bai Nafar gobernuaren menpekotasuna eta gurean dugun autonomia eza.

Bigarrenik esan behar dugu bertoko erakundeek, Madrilekoen moduan, helburu bakar bat izan dutela kudeaketa guzti honetan: patronalaren interesak defendatzea. Hau da langileen eskubideak murriztu direnean, biztanlegoaren eskubideak murriztu direnean, gure osasungintzaren kontrola Madriletik hartu denean, gure kaleak militarrez eta Guardia Zibilez bete direnean, ehunka negozio txiki ixtera behartu dituztenean batez ere merkataritzan edo ostalaritzan, ..., ez dute ezer esan. Beraien ahotsa bakarrik altxa dute patronal handiaren interesak erasotuta ikusi dituztenean, hau da, industriaren geldialdia ebatzi zuenean

Madriletik (behar beharrezko neurria sindikatuak, osasungintzako profesionalak eta adituak aspalditik eskatzen ari ginea, baina Euskal Herrian borondaterik ez zegoen hori eztabaidatzeko patronalaren interesen kontra zihoalako, eta Madriletik pandemiaren hedapena egoera jasan ezina bihurtu zenean bakarrik hartu zen). Orduan bai, orduan patronal handiaren etekinak bermatzen ez zirenean, bertoko gobernu biak eskutan zituzten mekanismo guztiak jarri dituzte martxan Confesk eta CENen interesak defendatzeko. Gobernuak patronalaren bozeramale dirrela demostratu dute.

Ondorioz, krisiaren kudeaketan lehentasuna patronal handiaren etekinak bermatzean kokatu dira. Langileen osasuna bermatzea bigarren lerro baten geratu da. Adibidez oinarritzko zerbitzu eta lanak ez zirenetan jarduna mantenduz langileen osasuna arriskuan jarriz,

edo oinarrizko zerbitzuetako prebentzio neurriak (maskarak, eskularruak, ...) industriara desbideratuz. Esan behar dugu Gobernuak, bertokoak eta Madrilakoak, botere ekonomiko eta patronal handiaren interesak biztanlegoaren osasunaren gainetik jarri dituztela.

**LABek lanean seguritatea ezin de-  
nean bermatu planto egiteko deia  
egin zien langileei lehen unetik. Hain-  
bat enpresa langileen ekimenez gera-  
tu ziren. Euskal Herriko langileria eu-  
ren ordezkari politikoek baino ardua  
gehiagorekin jokatu du krisi honen  
aurrean? Ze irakurketa egiten duzu?**

Langileak beraien osasuna eta bere inguru-koena jarri dute lehen helburu moduan, eta horrela uler dezakegu arlo industria-leko hainbat enpresetan bultzatutako plantoak, edo oinarrizko zerbitzuetan lan egiten duten langileen salaketak.

Ordezkaritza politikoek eta patronalak osasuna bigarren lerroan jarri dute. Milaka langile batzen ziren tokiak lanean mantendu dituzte nahiz eta prebentzio neurriak hartzeko aukerarik egon ez, oinarrizko zerbitzua ematen ari diren pertsonen, zuzenak eta azpikontratatuak, ez diete berain lana segurtasun osoz egiteko bermea ematen dien prebentzio neurriak eskaini, hau da, gizartea zaintzen duten langileak ez dituzte zaindu. Milaka lanean kutsatu dira, eta jada bi ere hil dira.

**Kutsatutako pertsonen ehuneko oso altua osasun zerbitzuetako langileek osatu dute. Zahar egoitza eta ospitaleetan babes neurrien eskasia salatu dira. Zer errealitate estruktural dago honen atzean?**

Ez dugu ahaztu behar zahar egoitza, ospitaleak, etxez etxeko laguntza, ambulanzia, zerbitzuak administrazioarenak direla, nahiz eta zati handi bat azpikontratatuta egon. Beraz administrazioaren ardua da bere langileak eta baita azpikontratatuak ere.

Eremu hauetan, bai langile zuzenen eta baita azpikontratatuakoen pertzep-

zioa administrazioak guztiz abandonatuta utzi dituela da. Osasungintzan prebentzio neurriak falta dira, hainbat salaketa entzun eta ikusi ditugu bertan lan egiten duten profesionalen partetik, eta egoera hori gero eta larriagoa da azpikontratazio katea arakatzen badugu.

Langileak beraien prebentzio neurri propioak egitera heldu behar izan dira, eskura zeukatzen tresnekin. Oso gogorra da entzutea zahar egoitzetako langileak esanez, babesteko plastikozko poltsak edo eskuz eginiko maskarak erabiltzen ari direla, ematen ari diren zerbitzuko arduraduna, administrazioa, beraietaz ahaztu egiten delako.

Azken hamarkadetan Euskal erakundeek aurrera eraman duten pribatizazio eta murrizketen politikak zer ekartzen duten ikusten ari gara, oinarrizko zerbitzuak emateko gaitasunik ez, ezta bertan ari diren langileen segurtasuna bermatzerik ere. Honek erreflexio sakona behar du, eta osasun eta zaintza sistema publiko eta indartsu baten beharra lortzeko pausoak ematearen beharra agerian geratzen da.

**Krisi honen gestioan ze hutsune azal-  
eratu dira lan osasunari dagokionean  
zure ustez Hego Euskal Herrian?**

Oinarrizko zerbitzuetan, nahiz eta egoera bazetorrela ikusi, Gobernuak ez zuten egoera aurreikusitako prebentzio-babes neurriak ez zeuden prest etorri denari erantzuteko. Gero, berandu, osasungintzako langileentzat neurriak lortzen saiatu dira, baina lortu ez, eta gabeziak nabariak dira. Azpikontraturiko zerbitzuetan ezta hori ere. Langileak abandonatu dituzte. Oinarrizko zerbitzua ematen, lan baldintza prekarioekin, eta lan osasunari dagokionez abandonatuak.

Oinarrizkoak ez ziren tokietan administrazioak beste toki batera begiratu du lana egitea baimenduz eta bultzatuz, nahiz eta prebentzio neurriak bete ez. Patronala jarduna mantentzea zuen helburu etekinak bermatzeko, eta administrazioa horretarako beharrezko kolaboratzailea izan da, langileen osasuna arriskuan jartzen ari zirela jakinda ere.

**Etorkizunean zer motatako eredu-  
eraiki beharko genuke? Zertan ari da  
lanean LAB?**

Lehen aipatu moduan, argi dago osasun eta zaintza zerbitzu osoa publikoa eta indartsua behar dugula, eta hori lortzeko azken hamarkadetakoko pribatizazio eta murrizketa politikak atzera bota behar direla, publikotasunaren alde sakonduz, ez bakarrik zerbitzuaren titulartasunean, kudeaketan ere, azpikontratazioa ezabatuz.

Lan osasunari dagokionean, lehen-tasuna eman behar zaio biztanlegoaren gehiengoaren langileen osasunari patronalaren interesen gainetik. Baina ez bakarrik krisi sanitarioak kudeatzekoan, egunez egun enpresetan ematen ari diren egoeretan ere, dauden milaka lan istripu ekiditeko, baita hauen ondorioz urtero hiltzen diren langileak ere. Horretarako prebentzio plan neurri eraginkorrak bultzatu behar dira baita hauek aurrera eramaten ari direla kontrolatu, eta prekaritatearekin amaitu. ■

« Langileak beraien prebentzio neurri propioak egitera heldu behar izan dira, eskura zeukatzen tresnekin

Azken hamarkadetako pribatizazio eta murrizketa politikak atzera bota behar dira, publikotasunaren alde sakonduz »

# «Tenemos que asumir los cuidados como una responsabilidad colectiva, como un derecho»

**N**os ha hablado de la crisis de los cuidados, algo que ha existido siempre y que con la crisis del coronavirus se ha agravado y se ha profundizado en la situación de vulnerabilidad de muchas mujeres.

## ¿Qué escenario se ha creado con la gestión de esta crisis?

Es complejo definir con palabras un escenario tan dinámico, tan en movimiento del cual todavía buena parte de los elementos que lo están constituyendo están en disputa, no se terminan del todo de configurar.

Por un lado, no sabemos hasta qué punto se han evidenciado las carencias del sistema socioeconómico en el que vivimos: un sistema profundamente desigual y desigualitario, injusto, atravesado por un montón de violencias que operan a diferentes niveles. O si realmente se ha evidenciado lo fuerte que es en ese sentido el sistema. Lo que sí queda claro es que las entrañas de este engranaje han quedado desveladas. Es un sistema que se ha jactado de ser autosuficiente, todopoderoso, acumulador, competitivo e individualista. Se ha puesto en evidencia de que si no reconocemos, abordamos y asumimos las relaciones en clave de interdependencia horizontal, no vamos a poder seguir funcionando.

El escenario que se ha creado no es un escenario nuevo. Buena parte de los elementos que emergen, ya se venían denunciando y alertando desde los feminismos. Lo que sí es nuevo es que respuesta se le da a esta situación de aparente fragilidad del sistema, donde desde occidente se están abriendo

**JOSEFINA ROCO SANFILIPPO "TXEFI"** (1979, Salta, Argentina)  
Miembro del colectivo "Trabajadoras No Domesticadas" y coordinadora de la línea de economía feminista de Mundubat Fundazioa. Feminista, investigadora social, educadora popular. Licenciada en Ciencias Políticas por la Universidad de Buenos Aires y Doctora en Estudios Internacionales e Interculturales por la Universidad de Deusto.



**Josefina Roco**  
Miembro del colectivo  
"Trabajadoras No Domesticadas"



grietas en diferentes ámbitos como pueden ser la gestión de lo común o la salud, la educación, los cuidados o los alimentos. Puede ser un escenario de transformación emancipadora o puede ser un escenario de reconfiguración del poder, depende de qué tipo de arreglos se den a esta situación de crisis.

Yendo al punto de partida tendríamos que analizar cómo han definido la palabra crisis desde los Gobiernos. Teniendo en cuenta que algunos elementos están en el centro, nos deberíamos de preguntar qué es lo que está siendo amenazado ahora mismo, si está siendo amenazada la reproducción del capital, está siendo amenazado el sistema capitalista, la generación de acumulación. En función de qué definiciones y qué diagnósticos de partida tengamos va a venir también qué tipo de decisiones políticas tomemos.

Hay que poner en juego también cómo se combinan las diferentes esferas: son disputas que tienen que ver con lo material, con dar respuestas concretas en clave de presupuesto, en clave de recursos económicos para las situaciones que están surgiendo. También son disputas que tienen que ver con lo simbólico: cómo definimos las cosas, cómo vamos a nombrar el problema, si es que es un problema o si lo hemos visto como problema y lo tendríamos que haber asumido como un elemento constitutivo del sistema. Si esas disputas son personales o colectivas: el "Yo me quedo en casa" hasta qué punto es una propuesta. Debemos de pensar cómo podemos generar otro tipo de respuesta colectiva para que ésta no sea la única salida al problema.

**Desde el movimiento feminista se hace hincapié en que no ha sido la pandemia la que ha creado la crisis de los cuidados, aunque haya generado una situación de colapso. ¿Estás de acuerdo con esta afirmación? ¿Cuál es el análisis que haces?**

Deberíamos pensar en qué entendemos por emergencia y qué entendemos por urgencia. Cuando esa urgencia me

« Lo que sí queda claro es que las entrañas de este engranaje han quedado desveladas

Estas formas de malresolver los cuidados en la actual organización social de los cuidados lo que permite es meter debajo de la alfombra todas las necesidades de una manera muy barata, precaria y flexible

Con el tema de las trabajadoras de hogar y de cuidados tenemos que hablar de una deuda histórica »

atraviesa en lo inmediato y me llega cerca, pues entonces estamos en una situación de emergencia. Cuando esto era algo que aparentemente no me iba a llegar o era una realidad más lejana, no me preocupó. Esa lógica de funcionamiento y de la construcción de la subjetividad nos la han inculcado muy bien.

Es interesante mirar el colapso a partir de la pandemia porque de alguna manera las condiciones para hacer frente a la enfermedad dependen a veces de la clase social o al acceso de

determinadas coberturas, pero también es verdad que todas y todos estamos en una situación de alerta latente a la enfermedad. Esa sensación de que no me voy a librar también genera como un miedo, un pánico y una cercanía al reconocimiento de la emergencia.

Es interesante ver de qué hablamos cuando hablamos de cuidados. Se ha puesto en evidencia la fragilidad de este falso ideal de autosuficiencia, se ha puesto en evidencia también que necesitamos de cuidados, que todas las personas y todas las vidas humanas y no humanas, en diferentes momentos de los procesos vitales, con mayor o menor intensidad necesitamos de cuidados. Y quien no tiene esos cuidados garantizados no tiene la posibilidad de seguir viviendo. Y eso sucede a nivel personal, como vida única, pero también como especie. Si no nos cuidamos, en un futuro, no va a haber continuidad. Si no cuidamos el entorno que nos rodea, si no cuidamos el monte, el agua, el aire, tampoco va a ver mundo. Planteo los cuidados en un sentido amplio, hay que complejizar los cuidados.

Hay que asumir también los cuidados como una responsabilidad colectiva. Una responsabilidad que tiene que plantear un nuevo reparto y una nueva reorganización entre hombres y mujeres, entre clases sociales, entre pueblos... implica también de hablar de la deuda de cuidados.

Tenemos que asumir los cuidados como una responsabilidad colectiva, como un derecho. En ese sentido, los cuidados como derecho colectivo van más allá del nivel adquisitivo individual de las personas, sino que tienen que ser una responsabilidad común. Eso tiene que ver también con que los cuidados no pueden ser una mercancía.

Para mí es importante también con esta puesta en evidencia de la crisis de los cuidados que ya veníamos denunciando, redefinir los cuidados y, sobre todo explicitar qué estamos dispuestas a dar y qué estamos dispuestos a ceder, salir de la zona de comodidad y plantear



MUNDUBAT.ORG

una propuesta política colectiva de los cuidados que tenga que ver con despatricularlos, con desprivatizarlos, desmercantilizarlos y descolonizarlos.

**Centrándonos en las trabajadoras del hogar, esas mujeres que están sosteniendo nuestras vidas mientras sus derechos más básicos se vulneran cada día, ¿cuál es su situación?**

Con el tema de las trabajadoras de hogar y de cuidados tenemos que hablar de una deuda histórica. Es un sector que siempre se ha sabido que está ahí, pero no se ha podido trabajar en profundidad. Y ahora con todo lo que está pasando se está perpetuando esa deuda histórica. Siguen siendo el último eslabón de la cadena a nivel de las medidas de emergencia económica. Y esta perpetuación tiene que ver con un abandono institucional desde las diferentes dependencias de la administración pública y la propia normativa vigente es una normativa desigual, deficitaria y no equipara en clave de derechos mínimos con el Estatuto de las trabajadoras y los trabajadores. Ese abandono institucional es recurrente, es parte también de una hipocresía social. La situación, las características y las condiciones en las que se encuentran las trabajadoras son

éstas y no otras, es porque en esta sociedad los cuidados tienen este lugar y no otro. Si la situación fuese diferente las trabajadoras del hogar tendrían otras condiciones.

También tenemos que hablar de evasión y de instrumentalización. Esta evasión histórica es muy rentable para el sistema económico. Estas formas de malresolver los cuidados en la actual organización social de los cuidados lo que permite es meter debajo de la alfombra todas las necesidades de una manera muy barata, precaria y flexible, a costa de una evasión de todas las infraestructuras públicas y de cuidados y de la explotación de miles de mujeres.

Sobre la medida de emergencia económica, el reconocimiento de la prestación por desempleo para las trabajadoras de hogar, el sector de trabajadoras del hogar es el único sector que hasta ahora no tenía reconocida la prestación por desempleo. Ahora, después de mucha demanda, producto de una lucha histórica como símbolo de sector, el Gobierno de Sánchez ha reconocido la prestación por desempleo como medida de alerta, pero sigue siendo una medida coja. Porque sólo se reconocerá prestación por desempleo a las trabajadoras que tienen contrato escrito de trabajo. El

40% de las trabajadoras de hogar y de cuidados se encuentran en la economía sumergida y no van a tener acceso a la prestación por desempleo. De las que tienen contratos del trabajo, lo que está también comprobado es que esos contratos son contratos mentirosos, que no recogen las situaciones reales en las que se desarrolla la relación laboral.

La medida a nivel simbólico sí que tienen importancia. Pero sigue siendo una medida deficitaria y paliativa.

**¿Cuál crees que debería de ser la receta para poder hacer frente a esta crisis de los cuidados?**

La receta mágica no existe. Yo creo hay que ir trabajando a diferentes niveles, ir asumiendo la responsabilidad colectiva, ir desmontando también buena parte de los privilegios y de los prejuicios y colocar las cosas en su sitio: lo que nos corresponde como personas, como familias, como barrios, como comunidad, como organizaciones. Hay decisiones políticas a diferentes niveles que tenemos que abordar, aunque eso implique también salirnos de los lugares en los que estamos ubicadas, situadas y calentitas. ■

Entrevista completa en la web: [www.iparhegoa.eus](http://www.iparhegoa.eus)

# Virus de estado

La demanda de respuestas y soluciones ante las incógnitas y los problemas de dimensión aún desconocida que nos ha suscitado la pandemia provocada por el COVID-19 y la crisis que se viene posteriormente acelera el análisis, precipita las conclusiones y sobre todo deja fuera de juego a quien quiera aplicar, sin ningún rigor, su agenda anterior a esta pandemia, sea para mantener el statu quo o para confirmar las tesis de ruptura formuladas con antelación. Aún a riesgo de sumarme a esa lista, quisiera señalar algunas de las evidencias que a nivel de gobierno político se han podido comprobar en estas semanas y formular algunas preguntas.

## ¿QUIÉN MANDA AQUÍ? EL ESTADO, INSTRUMENTO PRINCIPAL DE DECISIÓN Y ACCIÓN

La pandemia ha golpeado duramente tanto al debilitado espíritu europeo como a la cacareada mayor autonomía europea. El virus no entiende de fronteras pero las de los estados se han afirmado notablemente en estos meses. El debate jurídico sobre las competencias de cada estructura jurídico – política puede ser apasionante a la hora de disculpar el vacío continental en la toma de decisiones para afrontar la crisis. Pero, el argumento de la competencia de los estados en materia sanitaria frente a

las estructuras comunitarias, hace agua ante la realidad de que esas competencias dentro del estado español también están transferidas a las comunidades autónomas. Los estados han protagonizado y prácticamente monopolizado la toma de decisiones, y lo han hecho de manera consciente con una clara intención de reforzar su papel simbólico y de recuperar capacidad y competencias.

El estado francés, desde su organización y mentalidad jacobina, ya tenía todos los instrumentos para aplicar sus decisiones de manera directa. El estado español, en cambio, ha desatado toda una batería de medidas que no se pueden entender sino desde una perspectiva de propaganda política e ideológica de cara a reforzar las posiciones constitucionalistas españolas. Una vez aparcada la posición plurinacional del gobierno estatal para asumir el control de todas las decisiones y operaciones, hemos visto desfilar (literalmente) por las calles y los medios al ejército, las diferentes policías, la corona, los mensajes unionistas etc. El estado no es solo el marco de decisión económico, político, educativo... sino que se reclama mayor poder para él y se señala, por ejemplo, la falta de un ministerio español de sanidad con competencias como una de las debilidades y se intenta imponer hasta el calendario escolar.

De la necesidad, virtud. La crisis provocada por la pandemia se aprovecha para apuntalar la tendencia de involución centralista del estado. Y eso se hace competencia a competencia o por medio de una renovación del consenso constitucional español, que si no se ha podido hacer vía reforma, se insinúa ahora con unos Pactos de la Moncloa II o por medio de una Mesa de Reconstrucción Nacional.

## ¿DÓNDE EMPIEZA EUROPA? EL HUNDIMIENTO DEL PROYECTO CAPITALISTA EUROPEO.

La crisis de credibilidad de la Unión Europea, que gestiona con mayor éxito la reacción ultraderechista que la voluntad



**JAGOBA ZULUETA  
BERASTEGI (1972,  
Andoain).**  
Responsable de  
la secretaría de  
formación de  
LAB.



transformadora izquierdista, se ha acen-  
tuado con esta crisis. Cada estado ha  
establecido sus estrategias sanitarias y  
sociales. Se ha cerrado las fronteras in-  
ternas de Schengen a las personas, pero  
el dinero y las mercancías han seguido  
fluyendo. La verdadera naturaleza de la  
Unión se ha manifestado una vez más.  
Pero también se ha constatado que no  
hay proyecto europeo para el salvamen-  
to de las personas. Ni de las que muer-  
ren a las puertas de la Unión ni de las  
personas trabajadoras que lo precisen  
puertas adentro. Ni gestión conjunta, ni  
perspectiva europea de las consecuen-  
cias, ni solidaridad económica.

Cabe señalar en el debe que, más  
allá de mensajes solidarios, tampoco a  
la izquierda, tampoco entre los pueblos,  
tampoco a nivel de clase, tampoco a ni-  
vel feminista se ha articulado o propicia-  
do una reflexión estratégica de acción  
común más allá de los marcos estatales.  
No reaccionamos colectivamente a las  
medidas disciplinarias impuestas por  
la troika al pueblo griego en la anterior  
crisis, ni hemos sabido reaccionar de  
manera conjunta y contundente ante el  
letal cierre de fronteras a refugiadas y  
migrantes. Y ahora, la falta de una visión  
y una pulsión internacionalista y solida-  
ria se ha visto confirmada una vez más.

### **AUTONOMÍA, ¿PARA QUÉ? LA RENUNCIA DEL AUTONOMISMO A CUIDAR DE SU PUEBLO**

Se podría intuir que las instituciones lide-  
radas por Jean René Etchegaray (en este  
caso con muy pocas competencias y re-  
cursos como para liderar una respuesta  
comunitaria a la pandemia) y María Chi-  
vite no iban a rechistar a sus presidentes  
estatales a la hora de cumplir lealmente  
las órdenes recibidas. En el caso de Chi-  
vite, pesa además la obediencia de par-  
tido. Nafarroa, en esa línea, ha sido una  
vez más el laboratorio principal de pro-  
paganda militar del estado.

El caso más sangrante, sin embargo, lo  
encontramos en el gobierno de Gasteiz.  
Se puede hacer una lista interminable de

decisiones a las que el gobierno de Urkullu  
ha llegado tarde o ha llegado mal, siem-  
pre rectificando alguna decisión contun-  
dentemente formulada poco antes. Pero  
lo más reseñable de cara al objetivo de  
este análisis son otras dos cuestiones.

La primera de ellas, la inacción. La re-  
nuncia a tomar decisiones políticas diri-  
gidas a cuidar a su población. El autogo-  
bierno hizo aguas por parálisis y quedó  
en evidencia por las ganas del gobierno  
estatal de tomar el mando y ensayar un  
155 general por alarma sanitaria. Desde

entonces Urkullu ha ido a remolque y  
sólo ha levantado la voz para defender  
los intereses de una mínima parte de  
su ciudadanía, aquella organizada en  
el lobby empresarial que presionó de  
manera visceral para evitar las medidas  
de confinamiento cuasi total que orde-  
naban el cierre de centros de trabajo  
con labores no esenciales. El PNV ha  
optado en esta crisis de manera visible  
por la defensa de intereses de parte (de  
clase) contra los intereses generales de  
la población (la salud general).





La segunda cuestión a remarcar es el modo de gobernar. En una situación excepcional con el parlamento disuelto, Urkullu se ha reunido de manera presencial con cargos públicos de su partido en otras instituciones pero ha puesto obstáculos a reunir presencialmente la diputación permanente o ha evitado rehabilitar el parlamento. Ha tenido una confluencia de mensaje e intereses, que no se entiende sin una relación estable, con Confebask y ha dado la espalda a la mayoría sindical, a la que sus compañeros de partido han tratado de ridiculizar. Y por poner otro par de ejemplos ha despreciado el llamamiento del movimiento feminista a establecer una mesa técnica (plural y multilateral) para abordar la crisis de cuidados y, por otra parte, ha atacado la organización de redes locales de ayuda, cuidado y solidaridad para luego tratar de apropiárselas institucionalmente. El modelo de gobierno del PNV es del Jauntxo que pretende que el poder le corresponde por naturaleza, sus intereses son lo primero y los demás no deben tener otra función que la obediencia. La agresividad hacia el disidente y la insensibilidad hacia el sufrimiento demostradas estas semanas han sido demenciales.

#### ¿QUEREMOS UN ESTADO VASCO? ¿NECESITAMOS UNA REPÚBLICA VASCA? PASOS HACIA LA CONSTRUCCIÓN DE LA ESTATALIDAD Y LA SOBERANÍA

El virus pasará. Aunque nos hemos mostrado tremendamente vulnerables encontraremos las soluciones. Pero nuestra sociedad, nuestro modelo económico y político se ha visto desbordado una vez más. No hemos descubierto nuevos problemas. Pero se ha visto que el sufrimiento individual y colectivo que generan los problemas ya existentes no son asumible emocionalmente y prácticamente en estas situaciones extremas. Los intentos de imponer una nueva normalidad basada en la precariedad absoluta pero aceptable como mal menor,

sustentadas en un discurso del miedo y que generara nuevos enemigos (los diferentes, las otras) a los que culpar, proliferarán y seguramente prosperarán. El todopoderoso mercado, una vez más salvado por los poderes (y los tesoros) públicos, encontrará (si no lo ha hecho ya) una adecuación de su discurso y el modo de acumular beneficios.

Pero nos queda la opción de transitar otro camino. El de las lecciones que nos deja esta nueva crisis. Sin duda, la primera es la importancia del estado. Este virus ha sido un virus de estado. Uno

---

La crisis provocada por la pandemia se aprovecha para apuntalar la tendencia de involución centralista del estado.

El PNV ha optado en esta crisis de manera visible por la defensa de intereses de parte (de clase) contra los intereses generales de la población (la salud general).

Nos queda la tarea de dirigir esa capacidad a la construcción de una alternativa de cambio político y social.

que los ha reforzado. O que, por lo menos, ha puesto el papel y el poder del estado en el centro del tablero. Y que, sin tener que alabar a ninguno, ha demostrado que las medidas que se pueden tomar (en clave de salud pública, de servicios públicos, de medidas económicas, ...) pueden ser muy diferentes: el modelo de ese estado dependerá de las ideas comunes y mayoritarias que lo impulsen y de las fuerzas organizadas que lo construyan.

Podemos extraer otras lecciones. La falta de soberanía explica, pero no excusa, la falta de estrategias propias, de estrategias nacionales. El movimiento feminista ha puesto encima de la mesa la cuestión de los cuidados como una crisis estructural, unos cimientos sociales que no aguantan más y que no merecen que se arrincone el debate otra vez. El movimiento sindical ha denunciado con desesperación la precariedad en el empleo, absoluta en algunos sectores que se han demostrado esenciales para el sostenimiento de la vida. La política industrial se ha visto desorientada del objetivo de proveer a su sociedad de bienes de consumo necesarios e incluso imprescindibles. Los servicios públicos han aparecido debilitados e insuficientes, víctimas de recortes y medidas precarizadoras. Y hemos visto una administración insensible a nuestro primer sector y a expensas del "mercado" para el abastecimiento alimentario... Demasiados boquetes en la fachada de nuestra casa.

Tenemos un pueblo que ha demostrado más compromiso solidario, más innovación tecnológica, más responsabilidad colectiva con la salud general y más generosidad política que sus gobernantes. Nos queda la tarea de dirigir esa capacidad a la construcción de una alternativa de cambio político y social. En Euskal Herria existen condiciones para que los valores, contenidos y procesos de estatalidad propia respondan a las necesidades materiales, políticas y emocionales que se han demandado mayoritariamente estas semanas. ■

**E**pidemiak ez dira berriak gizakiaren historian eta hain zuzen ere, Focaalten hitzetan, epidemiak kontrolatzeko 3 paradigma nagusi egon dira. Lehenengo, lepraren kudeaketari lotua egon dena eta infektatuen kanporaketa soilik bilatzen zuena. Bigarrena, eredu diziplinarioa deiturikoa eta izurri bubonikoan aplikatutakoa; eredu honek, COVID19an gertatzen den antzera, populazio guztiaren kontrola bilatzen du mekanismo diziplinarioen bitartez. Azkenik, hirugarren eredu, segurtasunean oinarriturikoa litzateke, baztangan erabilitakoa; honen kasuan, gripe arruntean gertatzen den antzera, txertoak bezalako mekanismoak erabilia, segurtasun kolektiboan jartzen da enfasia, betiere arrisku tarte batzuen barruan.

Orduan zer da berria testuinguru honetan? Kapitalismo global, neoliberal eta finantzarizatu batean gaudela eta epidemia hor kokatu behar dugula. Eredu diziplinarioaren aplikazioak forma ezberdinak hartzen ditu tokiko baldintzen arabera eta horrek bi dimentsiotan operatzen du: epe motzeko dimentsio koiunturalean ("El COVID es una guerra, ninguna novedad en el frente") eta epe luzeko dimentsio estrategikoan ("El COVID va a cambiar nuestras vidas por completo"). KoronaBirus 4.0 alegia.

### KORONA

Gerra da beraz bizi duguna, kanpo etsai ikusezin baten aurkako gerra. Eta Estatuak indar belikoei bide eman die, terminologiatik hasita militarrek gure kaleetan ikusteraino. Eta argazki harri-garriak ikusi ditugu: maskarak jantzita eta beharrezko segurtasun ekipamendu guztiarekin kaleko harrizko jesarlekuak garbitzen ibili dira, supermerkatuko, osasungintza edota zaintza langileak zakar boltsaz babesten ziren bitartetan. Alarma egoera, gerran gaude lagunok!

Alarma egoera birzentralizazioaren eskutik heldu da, 155. artikulua "de facto" aplikatuz eta gure autogobernu apurrak ezer ezean utziz. Ez ditugu entzun patronalaren interesen defentsa egiteko hemen erabakitzearen aldeko horiek gure

# Estatuak indar belikoei bide eman die, terminologiatik hasita militarrek gure kaleetan ikusteraino



MIKEL ALVAREZ OLAECHEA  
(1993, Betelu).  
LABeko ekintza  
sozialeko arduraduna

Mikel  
Alvarez

LAB sindikatuko  
ekintza sozialeko arduraduna

LAB SINDIKATUA | CC BY SA

eskumenen aurkako eraso honi erantzuten. Kontrara, bertako poliziek zintzo eta leial jokatu dute Madrilen aginduetara eta bueltan jaso dute haien txakurkeriak lehen baino askatasun handiagoz egiteko boterea.

Horrela, kontrol soziala naturalizatu, baimendu eta are gehiago, eskatzen ari gara. Geolokalizazioa duten aplikazioak norekin egon garen eta norekin ez kontrolatu eta norbere burua arriskutik kanpo kokatzeko; etengabeko kontrolak errepideetan; kaleetatik filmetako sheriff

gisa legearen jabe diren poliziak ongia eta gazikiaren arteko zaindari. Mozal legea indarrean dagoen denbora tarte osoko isun gehien ezarri diren tarte dugu azken hilabetea. Adibide bat, apirilaren 11an EAEn 2.951 lagun identifikatu zituen Ertzaintzak eta udal poliziek eta 484 isun ezarri zituzten. Izugarria.

Birusak ez omen du klaseetako bereizketarik egiten baina alarma egoerari aurre egiteko baliabideak eta honen ondorioetan desberdintasuna nabaria da. Kontrolak ez direlako aberatsenen ur-

banizazioetatik edo transito eremueta-  
tik ikusten, atxiloketak eta isunak jende  
xehea edota arrazializatu dutelako jo  
puntuan, langile auzoetan dago polizia  
gehiago. Logika neoliberalaren arabe-  
rako alarma estatua da eta beldurra ar-  
datz izanda, betikoek ematen digutela-  
ko beldurra, eta zaurgarrienak babestu  
baino pribilegiatuak(ok) ez kutsatzeko  
baztertea da politika polizialaren fun-  
tsa. Etxerik gabeko herritarrak etxean ez  
egoteagatik (ber)zigortu nahi dituzte.

Guzti hau gainera, biztanleko polizia  
gehien duen lurraldean. Milaka tortura-  
tu eta jazarpen polizial izugarria bizi izan  
duen Herrian. Horratx Intxaurrondoko  
kuartel aurrean Ertzaintza eta Guardia  
Zibilarren laguntasun txaloak. Madriletik,  
eta beste neurri batean baita Parisetik  
alarma egoera hau langileria babesteko  
hautuari uko egiteaz gainera bere bu-  
ruaren jabe izan nahi duen komunitate  
batekiko mespretxua eta "tabla rasara-  
ko" erabili nahi dute, osasuna- segur-  
tasuna parez pare jarritz. Horrenbeste  
sufirimendu eragindako estatu-biolen-  
tziaren monopolioa darabiltenak COVI-  
D19aren aurkako lehen lerroko salba-  
tzaile gisa aurkeztu nahi dizkigute.

## BIRUS

Birusa (auto)kontrola bezalako da; fe-  
nomeno kolektiboa da, baina norba-  
nako bakoitzean gorpuzten da. Kontrol  
sozialaren metabolizazioan eta asimila-  
zioan oinarriturik, besteak kontrolatzeko  
grina sortzera ere iritsi da pandemia.  
Pertsonen lan-esku soil bezala tratatu  
ditu kapitalak, etxetik lanera eta lane-  
tik etxerako joan-etorriak bakarrik izan  
direlarik baimenduak legez. Gizakiaren  
dimentsio erreproduktiboa alboratu,  
aisialdirako edota gozamenerako espa-  
zioak murriztu eta eskulan bezala kon-  
tzeptualizatu gaituzte. Kontrol soziala  
metabolizatzea hori ere bada, izan ere,  
norbanakoak bere funtzio sozialak asi-  
milatzean datza autokontrola. Baimen-  
duaren eta debekatuaren arteko muga  
irizpide ustez apolitikoen arabera finka-  
tzen denean, gainera, hegemonia sozia-

lean errazago barneratzea bilatzen da.  
Autokontrol horrek ere besteen kontra-  
ko bulkadak ditu, komunitatearen uler-  
kera konpetitibo eta mehatxatzaileen  
gorpuzten dena; balkoietako poliziak  
izan dira horren adibide nagusia.

## 4.0.

Etorkizuneko distopia hemen da. Esan  
ohi da biolentziaren erabilera zuzena es-  
tatu baten ahuleziaren ezaugarri dela eta  
beraz, kontrol ez bortitza, hau da, bortiz-  
keriarik gabeko dominazioa, indarraren  
adierazle. Big dataren erabilera izango  
da kontrol sozialaren dispositibo nagusia  
hurrengo garaietan; etorkizuna orainaldi-  
ra etorriko balitz bezala, COVID19ak hori  
ere agerian utzi du. Pandemia kontrola-  
tzeko Txina edo Hego Korean erabilitako  
aplikazioak edota Espainiako gobernuak

mugikortasuna detektatzeko onartutako  
dekretua dira adibide garbienak. Google  
eta Telefonica bezalako enpresek euren  
jakintza guztia jarri dute populazioaren  
kontrola bermatzeko eta mekanismo so-  
fistikatuak muturreraino eraman dira. Ja-  
kina da datuen eta eredu matematikoen  
erabilpena klabea izan dela pandemia-  
ren kontrolerako; afera ordea, bestela-  
koa da. Pandemia kontrolatzeko erabili  
dituzten eredu eta mekanismo guztiak  
etorkizunean zertarako erabiliko dira (eta  
erabiliak izan dira orain arte)? Nork du  
sarbidea datu horietara? Nork kudeatzen  
ditu datu horiek eta noren mesedetan?  
Teknologia-gizartea begien aurrean dau-  
kagu, errealitate bat da eta guztiak gara  
konplize modu batean ala bestean, bai-  
na ez daukagu honen inguruko proposa-  
men emantzipatzaileak. Bai-ez dikotomia  
antzuak baino, nork eta zertarako galde-  
rek indar gehiago dute auzi honetan.

Globalizazioan sakondu genuenean  
estatuaren papera desagertze bidean  
zegoela baieztatu zuten askok eta argi  
ikusi da hipotesi hori faltsua dela; mer-  
katuak estatua behar du jendea eta  
gizartearen kontrola efektibo egiteko,  
krisi egoeretan kapitalaren interesak de-  
fendatzeko eta era berean, tresna berdi-  
nak partekatzeke. Big Dataren adibide  
agerikoa da eta Silicon Valleyrena, ere-  
du paradigmaticoa. Estatuak, enpresa  
pribatuekin batera (Google, Facebook),  
datu base eta teknika aurreratuek garatu  
dituzte. Batzuk kohertziorako erabiltzen  
dituzten bitartean, besteek negoziaria-  
ko. Amazonek 10 000 langile gehiago  
kontratatu ditu konfinamenduan zehar,  
Zoom plataforma digitalak bere koti-  
zazioa izugarri handitu du burtsan eta  
gure datuen monitorizazioa merkatura-  
ko erregai perfektua da. Ekaitz Cance-  
lak "Despertar del sueño tecnológico"  
atalean esaten duen bezala: "panoptiko  
digitalean ez dago gure borondatearen  
kontra ari den Anaia Nagusirik; aitzitik,  
gure borondatez biluztera ere iristen  
gara." Ez dezan COVID19ak gure buru-  
jabetza pertsonal eta kolektiboa gehia-  
go biluztu! ■

---

Gizakiaren dimentsio  
erreproduktiboa alboratu,  
aisialdirako edota  
gozamenerako espazioak  
murriztu eta eskulan  
bezala kontzeptualizatu  
gaituzte

Ez ditugu entzun  
patronalaren interesen  
defentsa egiteko hemen  
erabakitzearen aldeko  
horiek gure eskumenen  
aurkako eraso honi  
erantzuten

# «A la mayoría de nosotras nos sostiene la economía informal»



**Marra  
Junior**

**Miembro del Movimiento  
Panafricano Bilbao**

MARRA JUNIOR

**L**as medidas que se han planteado para frenar la pandemia no han respondido a las necesidades y la realidad de muchísimos sectores de nuestro país. Las personas migradas, las racializadas, las personas que viven de la economía sumergida, las que no pueden vivir en una vivienda digna... ven empeoradas sus ya de por sí dañadas condiciones de vida.

**La situación de las personas migradas en general es complicada. ¿Cómo han influido en vuestras vidas las decisiones que se han tomado desde que estalló la crisis sanitaria?**

**MARRA JUNIOR (1984 Senegal) Cofundador y miembro del Movimiento Panafricano Bilbao, militante activo en el Movimiento Antirracista de Euskal Herria. Aliado del feminismo negro y técnico de intervención social (Mediador intercultural) de Médicos del Mundo Euskadi**

El término confinamiento es un concepto burgués: hemos leído que el 17% de lxs parisinxs han abandonado la ciudad para refugiarse en sus residencias temporales, en el campo. Mientras, en barrios olvidados hay viviendas que no están habitadas y mucha gente tiene que seguir trabajando sin condiciones de seguridad en diferentes sitios del estado para sostener la vida y la economía de los países. En España se rumorea (hay periódicos que lo desmienten) que el matrimonio Aznar Botella se ha refugiado en su chalet en Marbella en plena situación de alarma. Eso confirma que el confinamiento no es para la gente que vive de la economía informal.

El confinamiento no se ha pensado para gente como nosotrxs, las racializadas, las personas migradas, las refugiadas, y otros cuerpos plurales que habitamos las calles por "falta de recursos" o la falta de voluntad política. Tampoco se ha pensado en la realidad de la gente de los barrios olvidados como San Francisco y otros donde somos víctimas de un entramado racista estructural, institucional y social que nos categoriza siempre como ciudadanas de segunda, o que directamente nos deshumaniza.

No niego la necesidad de confinar a la gente, pero lo que es cierto es que no todas somos iguales frente a esta medida. Entre aquellas que deben continuar trabajando, o las que no se confinan o no pueden confinarse porque su hábitat no corresponde a las normas que el confinamiento exige.

Existe una realidad que no se ha tomado en cuenta ni por el Estado, ni en las medidas de necesidad de confinar a la gente, pero lo que es cierto es que no todos somos iguales frente a esta medida y esto se traduce en autoritarismo. Es decir, que la única respuesta del Estado y el derecho público ha sido más presencia policial, opresión y a veces, hasta violencia: ya hemos visto todas las agresiones físicas en el barrio San Francisco y otros barrios de mayor diversidad que venimos denunciando en otros artículos.



## ¿Qué limitaciones tenéis para sacar adelante vuestras vidas en esta nueva situación?

Cuando a la mayoría de nosotras nos sostiene la economía informal, los trabajos no reconocidos con derecho a paro, los trabajos sin contrato, no entramos en los recursos y medidas tomadas desde el gobierno de España y tampoco entramos en ningún otro tipo de ayuda. ¿Creéis que las pandemias no afectan a todas las personas por igual?

Claro que no. Si preguntamos a las personas del servicio doméstico muchas de ellas sin contrato ni derecho a paro, las solicitantes de asilo fuera del recurso sin ningún tipo de ayuda, las personas afectadas por las políticas migratorias que llegan a un territorio, donde no conocen el idioma ni un sitio a donde ir, las personas manteras que su única actividad es la venta ambulante, también a las personas que su único fuente de ingreso es la puerta del supermercado o en los lugares cultos, las trabajadoras sexuales racializadas y todas las personas que debido a su situación administrativa, no están en condiciones de trabajar o beneficiarse de una prestación económica sabremos que el confinamiento no es para nosotras. Sin olvidar a muchas familias gitanas que su única fuente de ingreso es la economía informal, a través de los mercadillos. Pero gracias a la capacidad de organización comunitaria y colectiva, la creación de cajas de resistencia de diferentes colectivos y comunidades autónomas han hecho que el sufrimiento no se haya visto mucho, pero allí está y duele.

Y si pensamos también, en algunos de los hermanos y hermanas temporeras, la mayoría de ellos de origen africano, que siguen trabajando en los campos de recogida de fruta y cuando regresan después de una jornada laboral, se encuentran con asentamientos de chabolas con paredes de plástico, sin agua, sin electricidad ¿esas personas pueden quedarse en casa? ¿Qué medidas se han tomado para ellas?

« El confinamiento no se ha pensado para gente como nosotrxs, las racializadas, las personas migradas, las refugiadas, y otros cuerpos plurales que habitamos las calles por “falta de recursos” o la falta de voluntad política.

Luego se suman las identificaciones policiales por perfil étnico-racial en las calles

La actuación policial en el barrio San Francisco es violenta, pero siempre lo ha sido

La única respuesta del Estado y el derecho público ha sido más presencia policial, opresión y a veces, hasta violencia »

## La ley de extranjería hace más vulnerable la situación de los inmigrantes. Se ha agravado la situación de las personas en situación administrativa irregular. ¿Podrías explicarnos por qué?

La Ley de Extranjería condena a millones de personas que llegan al Estado español sin un contrato de trabajo, también nos ignora, niega nuestras cualificaciones y conocimientos, nos ningunea y nos mete en un círculo infinito. Allí es realmente donde se encuentran en una situación desgarradamente violenta. Luego se suman las identificaciones policiales por perfil étnico-racial en las calles, una práctica habitual contra las comunidades racializadas que su único objetivo es encerrarlos en los CIEs (Centros de Internamiento para Extranjeros).

Porque los señores que velan por nuestra seguridad “dicen” que circular en el espacio público en todo el territorio del Estado Español sin un permiso de residencia es delito.

## Has denunciado el control policial que estáis sufriendo en el barrio. ¿Cuál es la situación?

Sí, pero no es porque personalmente me pararon más de 5 veces, en una distancia de 100 metros al salir de mi trabajo, con expresiones como: “eres tonto o qué”, “no os enteráis de nada...”, “¿Queréis morir?”, “Esto es serio, no se trata de ninguna broma”. Esto, lo dicen casi todas las personas racializadas. Los policías tienen interiorizados una serie de estigmas que desde sus prácticas racistas los interiorizan y así criminalizan los cuerpos, nuestros cuerpos que no responde a las normas de la civilización para ellos. La actuación policial en el barrio San Francisco es violenta, pero siempre lo ha sido. La situación de alarma lo ha puesto aún más tensa con más violencias que nos ha generado mucho sentimiento de rabia e impotencia.

Cuando leo o escucho el lema “Juntos podemos salir más fuertes y unidos” me pregunto dónde están lxs que antes eran los nosotros y los otros, y que cuando salgamos de esta seremos capaces de romper con el “nosotros y ellos”. ■

# «Bere kideak zaindu eta babesteko gai diren zerbitzu publikoak behar ditugu»

**NEREA KORTAJARENA IBAÑEZ** (Donostia, 1974). Gizarte Langilea lanbidez, Gizarte Hezkuntzan diplomatua. Emaus Gizarte Fundazioan gizarteratze zuzendari izandakoa eta pobrezia eta gizarte bazterketaren alorreko elkarte desberdinetako kidea. 2016a geroztik EH Bilduko Legebiltzarkidea, taldean gizarte politika eta enplegu gaien bozeramailea.



**Nerea Kortajarena**

EH Bilduko legebiltzarkidea

**K**oronabirusaragatik gaixotutako pertsonen kopurua igotzen doan heinean gure osasun eta zaintza sistema kolapso egoerara iritsi da. Maskara eta bata gabezia langileentzat, ohe nahikorik ez gaixotu direnentzat, gaixotu diren edota berrogeialdian dauden osasun profesional ugari, erretiroa harturiko osasun langileak lanean hasi behar izan dute...

**Osakidetza eta Osasunbideako erre-kurtsoek eta antolakuntzak gabezia nabarmenak erakutsi dituzte, baita zahar-etxeetakoek ere. Ezohiko krisi honi bakarrik egoz dakiok egoera tamalgarri hau edo egiturazko beste arrazoi batzuk ere badaude atzean?**

COVID 19aren inguruan sortutako larrialdian gure hutsune eta indarguneak nabarmenago azaldu dira eta argi ikusi dugu esaten zigutena baino askoz zaurgarriagoak garela. Urtetako hautu politikoen ondorioak bere gordinenean ikusi ditugu azken aste hauetan: pribatizazioak, murrizketa gogorak, inbertsio publikoaren jetsiera, prekarizatutako lan baldintzak, aitortutako gabeko ezinbesteko lanak, batez ere, zaintza alorreko lan feminizatu horiek... Esango nuke COVID19k sistemaren kosturak bere gordinen azalaratu dituela eta zenbait arloetan, gizarte zerbitzuen alorrean kasu, oraindik gehiago.

Baina arazoak aurretikoak ziren zalan-tzarik gabe. Zerbitzu publikoak jomugan izan dira azken urte luze hauetan. Pribatizazio prozesuek ez dute etenik izan eta muzkin pribatuen logikaren menpe geratu dira gure eskubideak bermatzeko ezinbesteko diren zerbitzuen prestazioak. Merkatu irizpideekin eskeintzen

diren zerbitzu publikoak dira nagusi, bai kudeaketa ereduagatik edo zuzenean enpresa pribatuek kudeatzen dituztelako. Kontua da, gobernuek merkatu irizpideekin kudeatzen dutenean asko dugula galtzeko herritarrok, eta, batez ere, emakumeok eta hori argi ikusi da larrialdi honetan ere. Ikusi eta gure larrutan sufritu; ikusi besterik ez dago, etxeko etxeko zerbitzuen egoera, adineko egoitza zentruetako egoera... edo, azken egun hauetakoa den beste adibide argi bat, EHUKo ikerlariak koronabirusa antzemateko garatutako test bat eskura jarrita, EAeko Osasun Sailaren erantzuna ba "hainbat enpresa ari direla testak garatzen". Denon onura aurretik jarri beharrean, merkatu irizpideak lehenesten dira berriz ere.

Aurrekaririk gabeko krisialdi honetan milaka langileen eskuzabaltasun eta sakrifizioaz ari gara aurrera egiten. Gauza asko ikasi eta ikusteko aukera ere eman digu larrialdi honek, ta duda izpirik gabe, orain baino lehen mahi gainean jarri ditugun idea eta planteamenduak berresteko aukera eskeini digu, tartean, zerbitzu publikoen indartzearen beharra, zaintzen gaituzten horien guztien garrantzia eta, finean, zaintzen gaituzten instituzionalidadeak eraikitze beharra.

**Osasun eta zaintza sistema izan dira gabezia gehien erakutsi dituzten zerbitzu publikoa, baina ez bakarrak. Hezkuntza sisteman ere hainbat gai azaleratu dira. Alde batetik, aurreikusi zitekeen krisi baten aurrean hezkuntza komunitateak ezin izan du modu antolatu batean prestatu ikasgaien transmisioa, inprobisazioz jardun behar izan dute. Bestetik adin txikiko askok ez dute baliabide nahikorik internet bidez ikasgaiak jaso eta kurtsoa jarraitu ahal izateko. Ze gogoeta egiten duzu honen inguruan?**

Hezkuntza komunitateak irakaspen bat eman digu, izan ere, egunetik gauera aurrez-aurreko klaseak, ikasleekin harremana, zuzeneko irakaskuntza... etxetik etxera egitera egokitu behar izan da.

Eta ez da erraza izaten ari egoera honek berrestu duelako hezkuntza eskubidea ez dela ikasle guztientzat berdina. Badira etxean internet edo ordenagailua ez duten gazteak, badira etxean modu duinean ikasteko giro egokirik ez dutenak, edo harrera etxeetan daudenak, eskola-jantokiak itxita otordu hori bera ere bermatua ez dutenak... kasuistika oso zabala da eta administrazio honek ez du gaitasun eta lidergorik izan egoerari behar bezala aurre egiteko. EAeko Hezkuntza sailak, 3 aste behar izan ditu, adibidez, telebista saio hezitzaile bat martxan jartzeko. Eta badira, oraindik orain, tresna teknologiak eskuratu ez dituzten ikasleak ere.

Gainera, Madrilan erabakien zain

« Urtetako hautu politikoen ondorioak bere gordinenean ikusi ditugu azken aste hauetan

Kasuistika oso zabala da eta administrazio honek ez du gaitasun eta lidergorik izan egoerari behar bezala aurre egiteko

Gure izaera komunitarioa bor-borrea ikusi dugu »

egon da Jaurilaritza etengabe. Hezkuntzaren kasuan, gainontzeko eremuetan bezala, Hezkuntza ministeritzak zer agindu zain egon da. Eta larriena da, ez duela bertoko hezkuntza komunitatearen inongo sektoreko mahairik deitu. Honek, erabakiak adostasunik eta babes gabe hartzeraren eraman du Hezkuntza saila, berandu, eta gaizki.

**Kolektibo zaugarrienenentzat eraikitako babes sare komunitario batzuk erori dira konfinamenduaren ondorioz, baina beste batzuk hasi dira sortzen herriz-herri eta auzoz-auzo; batzutan udalen esku-hartzea egon da antolaketan, bestetan bizi-laguneko sorturiko sareak izan dira eskusiboki. Instituzioek erakutsi al dute nahikoa sendotasun egoera hauei aurre egiteko?**

Esango nuke justuki arlo honetan inon baino argiago geratu dela zaintzen eta babesten gaituzten insituzionalidadeen garrantzia eta gurean, zentzu honetan ditugun hutsuneak.

Dagoeneko agerikoa zen zaintza krisi batean murgilduak ginela eta kolapso mailara iritsi da birusaren hazkunderi aurre egiteko hartu behar izan diren euste neurrien ondorioz. Zaintzak sozializatzeko sistema publikorik gabe, eta kolektibo zaugarrienenentzako babes eta zaintza hori bermatu beharko lukeen Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoa garatu gabe harrapatu gaitu COVID-19ak, beharrezkoa zen sendotasun nahikorik gabe: saturatuak dauden oinarrizko gizarte batzuekin, pribatizatu eta prekarizatutako etxez etxeko zerbitzuekin,...eta, kasu gehienetan, urrun, herritarrengatik oso urrun. Gizarte Zerbitzuen Legea onartu eta zaintza eta babesaren eskubide subjektibo bezala onartu zirenetik 11 urte pasa direnean, oso urrats motzak eman dira zaintza eta babesaren instituzionalizaio berri baten eraikuntzan eta, esango nuke, horren ondorioak gordinak direla orain.

Baina, lehen komentatzen nuen bezala, larrialdi honetan gure hutsuneak



© JAIZKI FONTANEDA | FOKU

eta indarguneak nabariago agertu dira. Gure izaera komunitarioa bor-borreetan ikusi dugu eta elkar zaintzen eta babesten duen herria gai izan da, beste behin ere, antolatzeko eta zaurgarrienei erantzun bat emateko gure auzo eta herrietan sortu diren zaintza sare horien bitartez. Bide berdinetik klabe komunitario eta zaintzaile horiekin lanean ari ziren Udalak ere, posible denaren marko zabaldu eta sorkuntza politikoan aritu dira bere herritarren ongizatea eta zaintza bermatu ahal izateko, malgutasunez, ausardiaz eta lidergo publiko argi batekin. adibidez Orereta-Errenteriako Udalaren kasua oso argia dela esango nuke, non krisi honen aurretik emandako urratsek, egindako hautu politikoek, zerbitzu publikoen indartzeak eta saretze eta komunitatea eraikitze ahaleginek bidea argiagoa eta, seguruenik, xamurragoa egin duten.

### **Zer nolako zerbitzu publikoak behar ditu Euskal Herriak zure ustez?**

Berdinen arteko herri baten tamainakoak; bere kideak zaindu eta babesteko gai diren zerbitzu publikoak behar ditugu:

Zerbitzu publiko burujabeak behar ditugu. Komunitatearen ongizatea hel-

buru izanik, kontrol publikoa berreskuratu eta ongi bizitzeko eta oparotasuna denon arten banatzeko baldintzak ezartzen lagunduko diguten zerbitzuak behar ditugu.

Herritarren eskubideen bermatzaile izango direnak, eta, unibertsaltasunaren bidean, sarbide irisgarri eta ekitatiboa izan behar dutenak.

Erreproduzio eta zaintza lanen feminizazioa baztertzen dituzten zerbitzu publikoak behar ditugu

Gertuko prestazioak eskeintzen dizkiguten zerbitzu publikoak behar ditugu. Izaera komunitarioa dutenak, diskriminaziorik gabe, herritar guztiei bideratutakoak.

Kalitatezkoak eta aurreratuak diren zerbitzu publikoak. Lan baldintza duinen bermatzaile direnak eta, halaber, ardua publiko batean diharduten langile guztien ekiparazioa bilatzen dutenak.

Planifikazioan eta kudeaketan pertsonen partehartzea bermatzen dutenak.

Eta, noski, ondo hornitutakoak; horrek, gure fiskalitatea eta zorpetze politika berraztertzea ere behartzen gaitu. Ezin dira herri nordiekoetako zerbitzu publikoak eduki egun dugun fiskalitate ereduarekin edo lehenesten diren aurrekontu politikekin.

### **Zein da gaur egun zerbitzu publiko horiek ez garatzeko oztopo nagusia?**

Dudarik gabe, kontrako bidean egindako hautu politikoak dira oztopo nagusia, ez dago zalantzarik. Hautu politiko horiek markatu dituzte lehentasunak eta, orain arte, zerbitzu publikoen garatzea ez da lehentasun izan. Horren lekuko, azken urtetan erakunde desberdinetako aurrekontuetan zerbitzu publikoek izandako pisuaren galera.

Edozein kasutan, esango nuke, inoiz baino kuestinatuagoa dagoela hautu guzti hauen oinarrian dagoen eredu kapitalista neoliberal eta, honen aurrean, ezkerreko posizioen berarmatze garai dela. Arrisku handiak ditugu momentu honetan, ezin ukatu; guzti honen bueltan itxura aldatutako kapitalismo batekin aurki gaitetzke, baina bektore eraldatzaile bat antolatze aukera ere irekitzen da eta hori baliatu behar dugu.

Ikuspegi honetatik eraikitako lidergo eta politika publikoen garaia da. Dena denontzako bilakatzeko politika publikoen garaia, esperantza aukeratzeko aukera ematen diguten politiken garaia. Bizitzaren aldeko apostu radikala egin eta oparotasun denon artean banatzeko politika publikoen garaia eta, horrek, ekimena eta lidergoa eskatzen ditu. ■



# «Ezinbestekoa da Euskal Herrian garapen teknologikoan eta balio erantsiaren sorkuntzan inbertitzea»

**A**zken urte luzeetan esku-lan merkea bilatu da Europatik kanpoko herrialde batzutan bertako ekoizpena egin ahal izateko. Oraindik Europan kutsatzeak oso urriak ziren momentuan eta Txinan dagoeneko produkzioa geratuta zegoenean, Euskal Herriko enpresa batzuk hornidurarekin arazoak izatekotan zeuden Txinatik ekartzen zituzten piezarik gabe. Kostuak txikitzeko Euskal Herriko enpresak erabilitako estrategiak epe motzean hainbat arrisku jarri ditu mahai gainean.

## Zein analisi egiten duzu enpleguen ondorioei dagokienean?

Oraindik goiz da gertatzen ari denak enpleguan izango duen eragina zein izango den jakiteko. Hasiera batean bazirudien Txinako ekoizpena izango zela kaltetuena eta euskal enpresa batzuk hornitzaile alternatiboak bilatzen hasi ziren, baina berehala ikusi zen ekoizpen-arazoa beste herrialde batzuetara hedatzen ari zela, eta ekoizpenak ere etenak izan zituela Euskal Autonomia Erkidegoan eta Mendebalde osoan.

Pandemiaren eta pandemiari aurre egiteko hartutako neurrien ondorioz, espero izatekoa da balio-kateen orientazio-aldaketa puntualak gertatzea, baina ez hornidurak epe laburrean herrialde batzuetatik besteetara argi eta garbi birbideratzea. Gertatutakoak eragin psikologiko handiagoa izan dezake nazioarteko horniduretan, baina litekeena da aldi baterako eragina izatea. Horren guztiaren ondorioz, egungo epidemiak sortutako ekoizpen-itxierek iraupen iragankorra izango dute.

Jakina, epidemia honetan osasun-neurriak noiz arte luzatzen diren, zein



**Adrian  
Zelaia**

**Ekonomilaria eta  
Ekai Centerreko presidentea**

ADRIAN ZELAIA

**ADRIAN ZELAIA ULIBARRI** (1959, Bilbo). Gaur egun ekonomia eta politika publikoen arloan lan egiten duen 'Ekai Center' ikerketa zentroko presidentea da.

herrialdeetara hedatzen diren eta zein intentsitatekin da kontua. Baina hori guztia hilabete batzuk barru jakingo dugu.

Bestalde, nazioarteko balio-kateetan eragin handiagoa izan dezakete Europan eta Estatu Batuetan sumatzen diren politika berrien ondorioek, neurri protekzionista gero eta handiagoen bidez ahulezia ezkututzen saiatuz. Geure arazoei aurre egin eta beste herrialde batzuetako jardunbide egokietatik ikasi beharrean, Errusiaren edo Txinaren aur-

kako politika gero eta oldarkoragoak aukeratzen ari gara etengabe. Joera horiek jarraitzen badute, nabarmen zaildu daitezke gorabidean dauden herrialdeekiko harreman produktiboak.

### **Euskal Herrian instituzio zein patronalek eredu hori lehiakortasunarekin lotuz defenditu dute. Lehiakorrako ala menpekoago gara?**

Nazioarteko espezializazioa aukera objektiboa da herrialde bakoitzak bere gaitasunak indartzeko. Baina esperientziak erakusten du nazioarteko merkataritza ez dela hainbeste ideologizatu behar, eta oreka gorde behar dela barne-gaitasunen sendotasunaren eta nazioarteko fluxuen aprobetxamenduaren artean.

Enpresa eta sektore bakoitzak bere erronkak ditu. Enpresa batzuk -kooperatibak bereziki - Euskal Autonomia Erkidegoko lanpostuak babesteko eta indartzeko ezarri dira atzerrian. Baina enpresa gehienek eskulan merkearekin diru gehiago irabazteko baino ez dute egin. Deslokalizazioak eta immigrazio masiboak helburu berari erantzuten diote: balio erantsiaren aldeko apustua egin gabe, eskulan merkean oinarritutako etekinen aldekoa. Horrek ez gaitu lehiakorrako egiten, alderantziz baizik. Inbertsio produktiboa, balio erantsia sortzea eta ahalegin teknologikoa bertan behera uzteko joeraren ondorio bat baino ez da, gure ekoizpen-egitura suntsitzen ari dena.

Tamalez, gure erakundeek eta patronalek euskal ekonomiari buruz duten iritzia enpresaburuen interesek zehazten dute, gero eta gehiago, eta gutxiago interes orokorrek. Badirudi enpresarien etekineterako ona dena ona izan behar dela Euskal Herriarentzat. Eta horrek ez du zerikusi handirik errealtatearekin.

**Euskal Herriko enpresen kostuak beste herrialdeetako langileen lan baldintza prekarioen bizkar merkatzeak Euskal Herriko aberastasuna handi-**

**tzea ekartzea dakar ondorio logikoa. Aberastasun honen banaketa gauzatzeko modua nolakoa izan da?**

Ez dut uste estrategia horiek Euskal Herriko aberastasuna areagotzen dutenik. Kooperatiben kasuan izan ezik, atzerriko eskulan merkearen erabilera masibo horrek - deslokalizazioaren edo immigrazioaren bidez - enpresariei onura errazak sortzen laguntzen die, baina soldadak eta balio erantsi handiko inbertsio teknologikoa beherantz bultzatzen ditu. Epe ertainera, ekoizpen-egitura hondatzen du horrek, Estatu Batuetan eta Europako zati batean gertatu den bezala. Hori da, hain zuzen, Euskal Herrian gertatzen ari dena. "Euskal garapen eredu" zena sistematikoki suntsitua izan da azken 10 urteetan, enpresa estrategiatik eta gure arduradun politikoen konplizitate eta axolagabekeriagatik. Eta harrigarria da gure eragile ekonomiko eta politikoen geldotasuna hori dena horren erraz onartzeko.

Enpresa eta sektore zehaztetan alde horretatik apustu logikoak egon baditezke ere, euskal ekoizpen-sarea aurrera ateratzeko, ezinbestekoa da Euskal Herrian garapen teknologikoan eta balio erantsiaren sorkuntzan inbertitzea. Inbertsioen beste edozein norakok enpresariak desbideratzen eta desorientatzen ditu, usteltzen ditu, eta aurrerapen teknologikoaren bidez ahalegin zailak eta arriskuak egiteko enpresariak konbentzitzea gero eta zailagoa egiten du. Salbuespenak salbuespen, enpresariei ez zaie erraztasunik eman behar irabazi errazak lortzeko. Aitzitik, inbertsio produktiboaren ordeko bideak erraztuko dizkien baliabide-erabilera oro mehatxu bat da gure ekonomiaren eta gizartearen etorkizunerako.

**Produktzio eredu honek nazioarteko garraio industrialaren ugaritzea ere badakar. Egongo da lanpostu berriak sortzen direla argudiatuz ondorio hau positiboki baloratzen duenik. Euskal Herriko enpresentzat ordea merkeagoa da kanpoan ekoitzi eta garraioa**

« Deslokalizazioak eta immigrazio masiboak helburu berari erantzuten diote: balio erantsiaren aldeko apustua egin gabe, eskulan merkean oinarritutako etekinen aldekoa.

“Euskal garapen eredu” zena sistematikoki suntsitua izan da azken 10 urteetan

Sistematikoki diru errazaren alde egitera bultzatzen dituzte enpresariak, eskulan merkea, kualifikazio gutxikoa eta lanpostu prekarioetan oinarriturik »

BIZTANLEKO ERRENTAREN BILAKAERA (E.B.ren batzbestekoaren portzentaia)				
	MERKATUKO PREZIOTAN		EROSTEKO AHALMEN PAREKATUA (EAP)	
	2007	2018	2007	2018
Europar Batasuna	%100	%100	%100	%100
Euskadiko E.A.	%122	%110	%131	%118
Nafarroa	%119	%104	%128	%112

Iturria: EUROSTAT / EKAI Center

### ordaintzea produkzio mota batzuentzat. Nola baloratzen duzu zuk?

Oso kasu desberdinak daude. Oro har, apustu horiek kostuak murrizteko helburuarekin egiten dira, nahiz eta hornidurretan arrisku handiagoa eragin. Kasu batzuetan - batez ere kooperatiba-entzupretetan -, nazioarteko hornitzaileen aldeko apustu hori laguntza handia izan daiteke euskal lantegietako inbertsioa sustatzeko eta ekoizpena balio erantsi handieneko jardueretan kontzentratzeko. Antzeko zerbait gertatzen da Europako herrialde batzuetan jabetza publikoko ekoizpen-entresa batzuekin.

Oro har, kostuen aldetiko abantailei esker lortutako baliabideei ematen diegun xedearan arabera justifikatzen da edo ez apustu horiekin hartutako arrisku handiagoa. Baliabide horiek balio diezagukete hornidurarik ezaren balizko arriskuei aurre egiteko edo Euskal Herrian inbertsio produktiboa bultzatzeko. Tamalez, ez da beti horrela izaten.

Nolanahi ere, hemendik aurrera, Mendebaldearen eta gorabidean dauden herrialdeen arteko tentsio politiko gero eta handiagoa ikusita, oso adi egon beharko gara nazioarteko balio-kate horien arrisku politikoekin.

### Azken langabezia datuek zerbitzuen sektoreko enplegu prekarioak suntsi-

### tu direla erakutsi dute. Euskal Herrian etorkizun ekonomikoa turismoaren araberrako zerbitzu ekonomia baten gainean eraiki nahi zutenen egitasmoak badu etorkizunik?

Tira, zehaztu beharko litzateke, garapena balio erantsi txikiko sektore eta jardueretan -hala nola turismoan edo ostalaritzan- oinarritzen ahalegintzen den euskal ekonomia da etorkizunik ez duena. Helburua izan behar da sektore horiei kualifikazio eta eraginkortasun handiagoa ematea, inoiz ez ekonomia osoan duten pisua handitzea. Suizida da horrelakorik Euskal Herrian egiten ahalegintzea.

Jarduera horiek bultzatzeak zentzua du garapen bidean dauden herrialdeetan edo industrializatu gabeko lurraldeetan, inoiz ez balio erantsi handiko postuak sortzearen alde etengabe egin beharko lukeen Euskal Autonomia Erkidegoaren moduko lurralde batean.

Ez ditugu gure gazteak prestatu sektore horietako lanpostu ez-kualifikatuak lan egiteko. Eta, gainera, gure ekoizpen-egitura azkar suntsitzen ari dira. Estrategia horiek Euskal Herriko enpresa-ekimena ere suntsitzen ari dira, eta sistematikoki diru errazaren alde egitera bultzatzen dituzte enpresariak, eskulan merkea, kualifikazio gutxikoa eta lanpostu prekarioetan oinarriturik.

Horren ondorioz, bertan behera uzten ari da inbertsio produktiboa, industriak eta balio erantsi handiko zerbitzuek behera egin dute eta biztanleko errentan posizioak azkar galdu dira Europarekin alderatuta (12 puntu EA Eren kasuan eta 15 puntu Nafarroan azken 10 urteetan). Hainbat hamarkadatan ekoizpen-gaitasuna berreskuratzeko eta gaitasun teknologikoa indartzeko ahalegina egin ondoren, eta ahalegin horri esker, gure posizioetan nabarmen aurrera egin ahal izan dugu Europako batzbestekoarekin alderatuta. Baina 10 urte daramatzagu European postuak galtzen, gure klase politikoaren axolagabekeria izugarriaren aurrean.

Gurea bezalako maila teknologiko baxuko ekonomia batean bereziki, apustu hau egin behar zen: kostu ala kostu gure diferentzial teknologikoa mantentzea gorabidean dauden herrialdeekin eta, bereziki, Txinarekin. Aitzitik, Txinak ahalegin teknologikoa etengabe handitzen duen bitartean, guk murriztu egiten dugu. Politika horiekin jarraituz gero, gure etorkizuna argi dago: gorabidean dauden herrialdeak gero eta jarduera-sektore gehiagotatik aterako gaituzte merkatutik, balio erantsi txikieneko industria-sektoreetatik hasita. Denbora kontua da. ■

# Heriotza duina eta gaur egungo egoera

**N**agusio, zalantzarik ez etorkizuna daukagu (ez gara bakarrik) baina erantzun bat aurki genezake: gaur egungo osasun sistemaren helburua, norabidez aldatzea da, hau da eskaerari zuzendu beharrean, beharrei zuzentzea. Agian, horrela egoera berezietan ez gintuzke ezustean harrapatuko. Osasun sistema publikoa eskatzen dugu, guri dagokigunez, pertsona nagusia bere osotasunean atendituko duena, norberaren etxebizitzan, zein erresidentzietan. Atentzio horren baitan ere heriotza duina izateko eskubidea.

Azken gai honetaz zer esan genezake gaur egun bizi dugun egoeran? Osasungintzaren gabeziak eta zahar-etxe askotako mundu ilun eta krudelarekin topo egin dugu. Bitartean, gutariko gehienok gure etxeetan gaude, senideren baten babespean, bakardadean edo langile baten laguntzaz bizitzen. Hori guztia horrela izanik, inoiz baina premiazkoagoa zaigu heriotza duina izateko eskubidea aldarrikatzea.

Bizitza liburu baten antzekoa da baina azken kapituluaren ere, guk geuk idatzi behar dugu. Ezin dugu utzi kapitulu hau besteen eskuetan. Eta gure erabakia izan beharko litzateke noiz hartu geltoki hori, bizitzari zentzurik ikusten ez badiogu.

Oinarriko eskubideen zerrendan aurrera pausak emanda daude aspaldian baina bizitzaren azken urratsa emateko zor zaigun eskubidea ez da agertzen. Eztatanda non kokatzen den argi dago: norbera bere bizitzaren jabe izatearen baitan eta eutanasia edo laguntzarik suizidioaren despenalizazioan.

Gaur egun Espainiako Epaitegi Konstituzionalak zera dio: "edozein hiritarrak eskubide osoa du bere bizitzaz nahi duena egiteko baina ezin dio Estatuari edo beste hiritar bati eskatu, helburu hori lortzeko laguntzarik". Eta gure Autonomia Erkidegoan, zer? Gasteizko Legebiltzarrean onartuta dago "Heriotza Duinaren

Irakaskuntzako langile ohia eta LABeko Irakaskutza arloan aritutakoa. LAB Helduak eta Bizkaiko Pentsionistak Martxan-eko kidea Bizkaiko Pentsiodunen Mugimenduko sorkuntzatik, kidea.



**Xabier  
Isasa**

**Pentsionistak Martxan-eko kidea**

XABIER ISASA

Legea" baina ez dago eskumenik "laguntzarik suizidioa" indarrean jartzeko, nahiz eta Legebiltzar osoak hala nahi izan.

Bide luzea dugu egiteke, heriotza modu duin eta nahi ditugunez inguratuta izateko. Gure herrialdean, gai honi bide egokiagoa emateko proposamenak aztertzen ari garen honetan, aspaldian eza-gutu ez dugun errealitate gordinenarekin topo egin dugu. COVID-19a dela eta, adineko hamarnaka pertsona hiltzen ari da Hego Euskal Herriko eta mundu osoko zahar-etxeetan. Beraien azken egunetan zer nolako duintasuna jaso duten, zenbateko min emozional sentitu duten ... beraiek soilik edo, agian, zuzenean tratatu dituzten langileek jakingo dute.

## ZAHAR EGOITZAK ETA BESTE BIDEAK

Zahar-etxeetan dauden pertsonak, gero eta urte gehiago dituzte: 80, 90 eta 100 urteko pertsona ugari dago. Nagusi horiek mendekotasun maila altua daukate, bi edo hiru gradukoak. Horrek esan nahi du zaintza eta arreta handiagoak behar dituztela, bai osasun mailan bai sozial mailan ere. Baina zahar-etxeen funtzionamendu-arauak 1998koak dira.

Ezin dugu ahortzi 2008tik hona, "krisia" deitutakoaren ondorioak jasan behar izan ditugula baina argi dago ondorio horiek oso ezberdinak izan direla batzuentzat eta besteentzat. Ondorio horien artean osasunari dagozkionak daude eta hauek arrakala



sozioekonomikoarekin lotura zuzena dute. Aldi berean arrakala sozio-ekonomikoak, klase soziala, generoa, adina, sorlekua, herrialdea eta abarrekin zerikusia dute.

Gaur egun gure Autonomia Erkidegoko milaka pertsona nagusik prestazioa jasotzeko eskubide subjektiboa dute mendekotasuna dutelako, baina horietatik %20 dagokien laguntzaren zain daude. Zahar-etxeetako plaza eskaera, orain arte oso handia izan da eta eskaintza oso urria.

Zahar egoitzan plaza lortu ez dutenek (gehiengo handi bat) etxeko laguntza zerbitzua jasotzen dutela pentsa dezakegu. Horien guztien orain arteko egoera, larria izan bada, hemendik aurrera areagotu egingo dela uste dugu.

Egia da aspalditik, LAB Helduak, Pentsionistak Martxan, BABESTU eta beste zenbait Erakundek, hau guztia aztertu eta etorkizunari begira proposamenak eta egitasmoak (Mendekotasun Lege Propioa) lantzen ari ginela eta garena. Bat-batean, Koronabirusaren pandemiak bete betean harrapatu gaitu eta azpiegiturak berri gabe eta baliabide zaharkituekin kudeatzea tokatu zaigu. Ondorioak latzak eta luzarorako izango dira, zerbitzu sozialetako langileentzat, pazienteentzat eta gizarte osoarentzako.

Hemen ikusten ari gara pertsona nagusien zerbitzuen nondik norakoa, pribatizazio bidetik doala. Pribatizaziotik eta norberaren etxean lortu dezakeen zerbitzuetatik. Horren guztiaren ondorioak aspalditik nozitzen ari gara eta pandemia latz honen garaian, bere gordintasunean kaleratzen ari zaizkigu.

## ZAHAR EGOITZEN INGURUKO ZENBAIT DATU ESANGURATSU

Aspaldian ohituak geunden entzuteaz gizartearen zahartzea, arrakasta soziala dela baina denok dakigu hori horrela izan dadin, kudeaketa egokia behar duela.

Gaur egun badaukagu mendekotasun Legea, Estatu mailakoa. Legeak agintzen duena betetzea derrigorrezkoa da eta mendekotasuna daukatenentzat, eskubide subjektiboa da.

Euskadin 2018an, Mendekotasuna

onartua zeukaten 78811 pertsona zauden; horietatik 65017 nolabaiteko prestazioa jasotzen zuten baina 13794k ez zuten inongo prestaziorik. Horietatik 8389 lehen graduak ziren 5405 bigarren eta hirugarren graduak. Non dauden guzti hauek? Beraien etxeetan senide edo laguntza pribatuaren babespean.

Zenbat Zahar-etxe- plaza beharko genituzke Euskadin, Munduko Osasun Erakundearen arabera? 65 urtetik gorako 100 pertsonako, 8,8 beharko liriteke. Bizkaiko datuen arabera 2016an 3,86 plaza zeuden. Datu hauek argi erakusten dute mendekotasunaren pean Euskadin egon daitezkeen milaka pertsona nagusi, beraien etxeetan daudela.

Kontutan hartu beharreko beste datua: zahar egoitzetako plaza gehienak pribatuak dira. Bizkaian 2016an, soilik %24,3 ziren publikoak.

Jakina da zahar egoitzen arazo larrienetakoa, langile kopuru eskasia dela. Bereziki gaueko zerbitzuetan. Hori da pribatizazioaren beste ondorioetako bat. Egoiliar bakoitzari eman beharreko denbora, eguneko 2 ordukoa izan beharko litzateke; Gipuzkoan 90 minutukoa da, Araban 88 minutukoa eta Bizkaian (plaza pribatu gehien daukana) 60 minutukoa.

Orain artekoa azaldu ondoren eta gaur egun, koronabirusa dela eta zahar egoitza askotan bizi duten egoera ikusirik, hemen esandakoarekin zerikusi zuzena daukala uste dugu. Zerbitzu publiko baten etengabeko pribatizazio bilakaeraren ondorioa dela esan dezakegu. Prebentzio kontzeptua, ezezaguna da arlo gehienetan. Zaintza emozional-afektiboa zer den susmatzea ere, ezina.

Langileen egoeraren inguruan, zer esan? Aipatu ditugu zer nolako ratioak dituzten. Zein baliabideekin tokatu zaie aurre egitea pandemiari?

Egoitzetako kudeatzaile zuzenak eta arduradun nagusiak (Foru Aldundiak) zer nolako informazioa ematen ari dira familiartekoei eta gizarte osoari?

Sistema baten porrot itzela bizitzen ari gara. Berriro errepikatzen uzten baditugu, gauzak aldatzeko aukera gutxi

izango ditugu eta ordaindu beharreko prezioa askoz garestiagoa izango da.

Gutxi aipatu dugu, egoerak sortarazi dituen elkartasun eta auzolan mugimenduz. Zabalak eta era askotakoak. Horiek dira gure herritarren indarguneak. Mantendu beharrekoak, zalantzarik gabe.

Pentsiodunen Mugimenduak zer dauka esateko une berezi honetan?

Mugimendu zabal honek, dagoneko, 27 hilabete daramatza indarrean. Horren ondoren gaur egun ezagutzen dugun Mugimendu zabal eta erabat anitza osatu dugu.

Gure aldarrikapen nagusienak gizarteratu ditugu, gehien bat, pertsona nagusi orok, pentsio duina izan behar duela; genero-arrakalak soldatetan eta pentsioetan gaintu behar direla, eta beste hainbat.

Bapatean, izurrite berri batekin topo egin dugu. Oraingoan ere, aurre egitea tokatu zaigu eta horretan gaude, nahiz eta oso prezio garestia ordaindu. Batzuentzat orain arte guk urte asko betetzea, gizarte aurreratu baten zorientzeko emaitza zen. Oraingo egoera lazgarri honetan aldiz, betiko horiek "normaltzat" jotzen dute gu izatea kaltetuenak, izan ere polipatiaz beterik gaude, batzuen pozerako. Hemendik ere ikasi eta ikasketak baliatuko ditugu.

Ez dakigu zergatik, baina bat-batean, ahaztuta gintuzten hedabideak berriro gutaz gogoratzen hasi dira. Kontzientzia txarraren seinale? Ez dut uste. Laster jakingo dugu sakoneko arrazoia.


Bitartean hor ari gara teknologia "berriak" erabiliz, gure arteko harremanak nolabait mantentze aldera, saiatzen. Astelehenero irteten gara geure leiho eta balkoietara (daukanak) geure zapiak eta pankartak haizeratuz, bizirik gaudela eta kalera berriro noiz irtengo zain.

Jakin badakigu hau baretzen den egunean, ez dela ezer berdina izango edo ez lukeela berdina izan behar.

Hemen azken bi hilabeteetan gauza asko gertatu dira eta sakonki aztertuko ditugu eta, noski, betiko borrokarekin inoiz baino indartsuago jarraituko dugu. ■

Artikulu osoa webgunean: [www.iparhegoa.eus](http://www.iparhegoa.eus)

MADDALEN DORADOR RUBIO (1987, Orereta). Licenciada en derecho, hoy en día es la responsable de la federación de servicios privados de LAB.



**Maddalen Dorador**  
Responsable de la federación  
de servicios privados de LAB

LAB SINDIKATUA | CC BY-SA

## «Es momento de poner cara a cara la vida con el capital y hacer esa batalla»

**L**AB pidió desde el principio medidas drásticas para hacer frente a la crisis de Covid-19, pidiendo la paralización de todas aquellas actividades que no fuesen servicios esenciales. Después del Decreto del Gobierno español que vino tarde y sólo durante dos semanas sólo pudieron trabajar el personal de la sanidad pública, pero también las cuidadoras, empleadas del hogar, reponedoras, carretilleras, transportistas...

### ¿Se les ha dado el valor suficiente hasta ahora?

Claramente no. Ha quedado en evidencia cómo el sistema económico se nutre de todas esas actividades que sustentan nuestras vidas, invisibilizándolas y precarizándolas. Trabajos que el sistema encomienda mayoritariamente a las mujeres, como si fuesen actividades naturales del género, y por ello, no necesarios de pagar, o por lo menos no lo suficiente en

comparación a la repercusión que tienen en la sostenibilidad de la vida.

Esta crisis ha dejado en evidencia cuales son las actividades realmente necesarias. Pero también ha dejado en evidencia quiénes hacen esos trabajos y en qué condiciones, es decir la división sexual del trabajo y brecha de género.

Hablamos de los trabajos que sustentan nuestras vidas, los trabajos esenciales e imprescindibles que cuidan nuestras vidas. Hablamos de la limpieza, trabajo esencial para que todo funcione, pero en esta crisis, imprescindible para parar la pandemia. Hablamos de los cuidados. Porque somos personas interdependientes y es necesario crear todo un sistema de cuidado público, que garantice una vida digna. Cuidados de personas mayores, de menores, de personas con diversidades funcionales, de enfermos y enfermas, de la comunidad en general. De la necesidad de intercomunicarnos,

mediante teléfono, internet o correos. Hablamos de toda la cadena de alimentación, desde trabajar la tierra a la venta. Sanidad, en todo su espectro, más allá de médicos y enfermeras, celadores, limpiadoras, ambulancias, farmacias...

El establishment ha demostrado su cara más oligárquica y avariciosa, arriesgando la vida de miles de trabajadoras y trabajadores por los intereses económicos de unos pocos.

Creo que por lo menos a partir de ahora, mucha gente será más consciente de esos trabajos necesarios para nuestras vidas y que no están lo suficientemente valorados para la función social que acometen.

### La situación en estos sectores es muy dura en el día a día. ¿Qué condiciones laborales tienen en estos sectores?

Gran parte de estos sectores son realizados fuera del mercado, es decir, gratis y

mayoritariamente por mujeres migradas y racializadas (trabajos domésticos, limpieza, labrado de tierra, cuidados...) Otra parte, sí tiene reguladas las condiciones laborales en el marco general pero con diferencias según el sector y el género de la persona trabajadora. Es decir, no es lo mismo limpiar la parada del tren o limpiar una oficina, o ser encargado del supermercado o ser cajera, celador funcionario o cuidadora subcontratada... pero en general, podemos decir que las condiciones laborales de la mayoría de estos colectivos están precarizados desde siempre. Los salarios son muy bajos, las cajeras o las trabajadoras de telemarketing no llegan a 1000€ brutos, casi la totalidad de las limpiadoras tienen jornadas parciales, los ratios de cuidados son muy diferentes según lo gestiona el servicio público o una empresa privada... Son sectores con gran brecha salarial de género.

Esta crisis ha evidenciado también la precarización de estos sectores mediante la privatización. Sectores imprescindibles para nuestras vidas, han sido año tras año recortados por el sistema público y privatizados a empresas que cotizan en bolsa. La privatización ha supuesto la caída de todo ese sistema público que debería velar por toda la ciudadanía, independientemente de sus orígenes o clase, en favor del enriquecimiento de unas pocas empresas, que tienen por objetivo eso mismo, enriquecerse y por lo tanto recortan en materiales o personal. Se ha visualizado claramente la falta de recursos humanos y materiales que tenemos en toda la cadena de cuidados.

**Empresas de servicios con trabajadores en precario se han dedicado a hacer negocio con esta crisis (Glovo, Amazon ...). ¿Qué clase de sistema refleja este tipo de comportamientos?**

Este sistema está organizado para eso, para hacer negocio, y por lo tanto una vez más, en las peores condiciones humanas, siempre hay quien hace negocio. Las empresas distribuidoras, están orientadas al consumismo salvaje,

individualista e instantánea. Empresas como Glovo, Deliveroo... forman parte de todo un entramado de marketing, que impulsan a ese consumo sin control ni empatía social. Es tal la precarización de estos trabajadores y trabajadoras que la mayoría de ellos no tienen ni contrato. Son obligados y obligadas a trabajar como autónomas en condiciones extremas por un pago miserable. En esta crisis, hemos tenido que ver cómo miles de negocios locales han cerrado o como se han prohibido los mercados locales pero a su vez, hemos visto al Corte Inglés abrir en domingos o a trabajadoras y trabajadores de Amazon distribuir bicicletas estáticas sin ningún tipo de protección. Es decir, las decisiones políticas han pervertido el consumismo salvaje de la sociedad ante lo local.

Pero esta crisis también ha dejado en

« Somos personas interdependientes y es necesario crear todo un sistema de cuidado público, que garantice una vida digna.

Sectores imprescindibles para nuestras vidas, han sido año tras año recortados por el sistema público y privatizados a empresas que cotizan en bolsa »

evidencia la necesidad de distribución de elementos de primera necesidad desde una perspectiva de cuidados de la sociedad. Lo que quiero decir es que tenemos una oportunidad de repensar los servicios, y de poder conectar los pequeños comercios con clientes mediante unas distribuciones colectivas y cercanas. Para eso tenemos que desprendernos de esas megaempresas y crear como trabajadoras y como sociedad las nuestras propias, basando la distribución en el cuidado comunitario, con unas condiciones dignas.

**En general y teniendo en cuenta que este tipo de empleos no tienen gran valoración social y económica ¿qué carencias ha hecho aflorar esta crisis? Y en el camino de conseguir el reconocimiento que necesitan todos los trabajos, ¿qué modelo propone LAB?**

Ha quedado al descubierto que todo pivota en la acumulación de riqueza de unos pocos y no en nuestras vidas. Han quedado al descubierto los trabajos que son verdaderamente esenciales, los que protegen nuestras vidas y las hacen posibles. Ha quedado en evidencia la necesidad de un sistema público reforzado, sin recortes ni privatizaciones. Deberíamos de aprovechar esta luz para dignificar estos trabajos. Debemos poner en el centro los trabajos reproductivos, debemos oír a esas trabajadoras, organizarnos juntas y regular las condiciones valorándolas según el valor social aportado. Debemos acabar con la brecha de género. Es momento de poner cara a cara la vida con el capital y hacer esa batalla. Eso requiere de valentía para repensar un nuevo sistema, con un nuevo reparto de riqueza, con un nuevo modelo laboral, con un nuevo sistema de distribución horaria, un sistema público de cuidados fuerte, un sistema en armonía con el ecosistema, donde quepa toda persona trabajadora sin exclusión de género, origen o funcionalidad. Para ello nos es necesaria la soberanía, el poder de decisión para crear una nueva Euskal Herria. ■





Cada vez más gente nos dimos cuenta que la solución no consistía en tapar los agujeros del sistema para volver a la situación anterior, sino que era justamente con la tierra que faltaba en esos agujeros con la que debíamos construir un nuevo mundo.

La tierra nos había mandado parar hace tiempo y esta vez sí, pagándolo con nuestras vidas, empezamos a entender

que todo es uno y que uno es todo

que nuestra forma de vida estaba matando al planeta y por ende, a nosotros mismos

que aquel consumismo y desarrollismo sin límites era insostenible

Entender que la vida de todos los que habitamos el mundo vale por igual

y actuar en consecuencia,

fomentar nuevos cánones de felicidad y bienestar, de justicia social

cambiarlo todo...

**Fragmento del texto "Mañana"**  
de Jon Maia Soria publicado en el periódico Gara.

Texto entero: [http://www.labur.eus/JMS\\_manana](http://www.labur.eus/JMS_manana)